

“Osasungintzako profesionalok mesfidatienak gara etxean erditzeko kontuagaz”

Izarne Totorika Txurruka  
Medikua • 2-3



## José Manauten 'Kartzela eta erbestea Durangon' erakusketa Durangoko Museoan ikusgai

**Kultura** | Margolari valentziarrak Durangoko erbestealdian eginiko marrazkiak egongo dira ikusgai, bestek beste. • 24-25



2019ko irailaren 20a | 17. urtea | 776. alea  
Durangaldeko astekaria

www.anboto.org

 **anboto**

TOKIKOM



**Botere aldaketa**

**Amankomunazgoan**

Amankomunazgoko agintaritza Aitor Lopezen eskuetatik (EH Bildu) Mireia Elkoroiriberen (EAJ) eskuetara pasatu da. Datozen lau urteetan, Elkoroiribek enplegua, turismoa eta ongizatea garatu gura ditu • 9. orrialdea



SAN MIGEL JAIK 2019 IURRETA

IRAILAREN 20TIK URRIAREN 6RA

**JAIK**



**ALKI**  
BARNE DISEINUAK-en,  
bizi izateko espazioak  
sortzen ditugu.

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744  
alki@interioresalki.com



**Izarne Totorika**  
**Txurruka**  
Medikua  
**Durango | 1988**

## “Emakume lez nire gorputzak zuen gaitasunean eta instintuan sinisten hasi nintzen”

Etxean erditzearen gaia mahaigaineratu guran, Izarne Totorika mediku durangarrak bere esperientzia kontatu du. Gaur egun Tolosan bizi da eta Donostiako ospitalean lan egiten du

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Medikua izanda, ospitalean erditzea izan zen Izarne Totorikaren lehenengo aukera. Etxean erditzeaz informatzen hasi zenean, ostera, iritzia aldatu zuen. Orain hiru hilabete, Lur alabaz etxean erditu zen, berak aukeratutako lekuan, berak aukeratutako giroan. Esperientzia horretatik abiatuta, Totorikak erditzeaz eta amatasunaz gogoeta egin du ANBOTOn galderei erantzunez.

**Zelan hartu zenuen etxean erditzeko erabakia?**

Haurdun gelditu nintzenean, nire lehenengo joera ospitalean erditzea izan zen. Gainera, Donostiako ospitalean lan egiten dut, ZIUen eta emergentzietan.

**Zerk eragin zuen aldaketa?**

Haurdunentzako Magale Etxeak

egin zuen tailer batera joan nintzen. Asko gustatu zitzaidan transmititzeko duten gaitasuna. Horrela, erditze aurreko tailerretara eurenkin apuntatu nintzen. Ospitalean zein etxean, edozein lekutan erditzeko prestatzen zaituzte. Ahaldundu egiten zaituzte. Tailerra amaitutakoan, emakume lez nire gorputzak zuen gaitasun horretan eta nire instintuan sinisten hasi nintzen. Erditzea nire etxeko egongelan bisualizatzen hasi nintzen. Bikotekideari kontatu nion eta horri buruz informatzen hasi ginen.

**Zein pauso eman zenituzten?**

Etxean erditzeari buruzko informazioa bilatu nuen. Magalekoek emandako berbaldi batera ere joan nintzen. Ikusi genuen hautagai ona nintzela horretarako. Erantzukizunez eta arrisku baxuagaz etxean er-



batzuekin kontaktuan ipintzerakoan, askok esaten zidaten unerren batean goragalea sentituz gero euren buruagaz haserre sentitzen zirela, umeagaz txarto sentitzearren. Errudun sentitzen ziren, ez zirelako jendeak esaten zuen besteko pozik sentitzen. Gure amek eta amamek askoz ere lasaiago bizi zuten egoera hau. Ez da espektatibarik eduki behar. Haurdunaldia ez da ideala, eta ez du izan beharrik. Erditzea ere asko idealizatzen dugu. Gauzak uste duguna baino naturalagoak dira. Gure buruarengan sinistu behar dugu.

#### **Zure buruarengan sinesteak asko lagundu dizu prozesu honetan?**

Ez naiz umezalea izan. Neure buruari esaten nion ez daukadala ideiarik ere umeak zelán zaindu. Ez dut Izarnerengan sinistu behar. Sinistu behar dut Izarnekin emakume lez dakien horretan. Unea heltzen denean jakingo dut.

#### **Erditzea zelán prestatu zenuen?**

Batez ere, mentalki oso indartsu egon ginen. Bikotekideak babes handia eman zidan, batez ere azken asteetan. 42 aste betetzen genituen azken egunean jaio zen alaba. Haurdunaldia oso ona izan zen. Asko zaindu nuen neure burua fisikoki. Igeri egitera zein oinez ibiltzera joaten nintzen. Mendian ere ibiltzen nintzen.

#### **Eta, mentalki, zelán prestatu zineten?**

Batez ere erditzea ez idealizatzen. Inguruan frustrazioa sentitu duen jendea ezagutu dut, erditzea ez zelako uste zuten bezalakoa. Berdin dio umea non jaiotzen den, edo anesteziagaz den edo anestesiarik barik. Epidurala hartu edo ez, ez zara ama hobea izango. Gauzak zetozen moduan hartzea gura genuen. Ez dezagun helburu nagusia ahaztu: gu ondo egotea eta umea ondo etortzea. Eta, bitartean, disfrutatua ahal badugu eta zein testuingurutan gertatuko den erabaki ahal badugu, hobeto. Bestalde, bikotekideak nigan sinisten zuela esaten zidan behin eta berriro, eta horrek asko lagundu zidan.

“

**Presioa sentitzen dugu dena ondo egiteko. Kapaza izango ote naiz?, galdetzen diogu geure buruari”**

—

#### **Zelakoa izan zen erditzea?**

42. astearen amaierara heldu nintzen, eta ohea hartuta genuen ospitalean, erditzea probokatzeko. Baina, azkenengo momentuan erditzen hasi behar nintzela konturatu nintzen. Desiratzen geunden. Ariketak egiten aritu nintzen, gau osoan. Goizean, emaginari deitu genion. Ospitalekoiei ere esan genien martxan zegoela eta momentuz ez ginela joango. Egun oso intentsoa izan zen. 24 ordu izan ziren. Lasai nengoen, beharbada erditze batzuk ikusi eta artatzea ere egokitu zaidalako. Fisikoki neketsua izan zen, baina indartsu nengoen mentalki. Emagin biak eta bikotekidea niri lazten egiten egon ziren denbora guztian. Masajeak ematen, gauzak ekartzen... Etxe guztitik ibili ginen. Azkenean, etxeko sofán jaio zen, emaginaren hanketan jesarrita nengoela. Etzanda baino askoz ere hobeto nengoen. Grabitateak asko lagundu zigun. Horren harira, zurezko aulki bat egin genuen emaginari oparitzeko, erditzeetan erabiltzeko.

ditu nintzekeen. Magalekoengana joan ginen eta baiezkoa eman ziguten.

**Orain dela gutxi, zure esperientziari buruzko gogoetaren inguruan testu bat publiko egin zenuen. Beldurrei buruz berba egiten zenuen. Amatasuna bizitzeko modua asko aldatu da? Gure amek edo amamek bizi zuten moduagaz alderatuta, beldurrez bizi dugu esperientzia hori?**

Ez dakit ez ote dugun bidean, momenturen batean, gure buruarengan sinesteko gaitasun hori galdu. Gure gorputzak badaki. Gure gorputza gu baino inteligenteagoa da. Haurdun zaude, baina ez zaude gaixorik. Zure gorputzak badaki zer egin behar duen eta zure umeak badaki zelán jaio. Ez da ezer ikasi behar. Presioa sentitzen dugu dena ondo egiteko. Kapaza izango ote naiz? galdetzen diogu geure buruari. Konparaketa asko egiten dira, ea nor egingo duen ondoen.

**Ama onak ez izatearen presioa sentitzen dugu? Haurdunaldian beste emakume haurdun**

#### **Eta alabari aurpegia ikusi zenion momentua?**

Erditzea luzea eta gogorra izan zen. Irten zen momentua itzela izan zen. Ilunetan, kandelak piztuta, musikagaz, gu laurok bakarrik... guk aukeratutako pertsonak baino ez geunden. Hain da polita erditu aditza! Eta basatia aldi berean. Azkenengo momentuan, berba egin nion umeari. “Lagundu amatxori. Zu ezagutzeko gogo dugu”, esaten nion. Eskuetan hartu nuen umea, eta denok emozionatuta geunden, erdi negarrez. Begiak zabal-zabalik zituen. “Azkenean ezagutu

“

**Gaur egun, ospitaleetako emagin gazteek beste pentsaera bat dutela esango nuke. Hala ere, badago zer hobetu”**

—

zaitut”, esan nion. Gauza asko ez ditut gogoratzen. Bikotekideak kontaktzen dizkit eta ez ditut gogoan.

#### **Ospitaleetako erditzeetan asko aurreratu da. Hala ere, oraindino badago zer hobetu?**

Nik Donostiako ospitala ezagutzen dut eta uste dut oso ondo lan egiten dutela. Asko aldatu da lehenago jendeak kontaktzen zuenagaz alderatuta. Erditze gelak indibidualak dira, zuk gura duzun pertsonagaz uzten zaituzte, eta lantzean behin etortzen dira. Tokatzen zaizun profesionalaren arabera dela uste dut. Gaur egun, ospitaleetako emagin gazteek beste pentsaera bat dutela esango nuke. Hala ere, badago zer hobetu. Uste dut, alde horretatik, lar patriarkalak izaten jarraitzen dugula. Besteen esku uzten dugu guk erabaki beharrek, eta alderantziz.

#### **Europako beste herrialde batzuetan askoz ere erraztasun gehiago daude etxean erditzeko. Kontu ekonomiko bat da ala mentalitate kontua?**

Europako herrialde askotan, gizarte segurantzak eskaintzen dizu etxean erditzeko aukera. Galdera ez da hemengo moduan: zein ospitaletan erditu gura duzu? Han galdetzen dizutena da non erditu gura duzun, etxean ala ospitalean. Ekonomikoki aukera biak finantzatzeko dituzte. Etxean erditzea erabakitzen baduzu, emagin talde batengana bidaltzen zaituzte. Holandan, esate baterako, aseguru pribatu bat hartzen duzunean, etxean erditzea da polizan sartzen dena. Ospitalean erditzeko indikazio medikorik ez baduzu, zeuk ordaindu behar duzu ospitaleko egonaldia. Izan ere, etxean erditzea askoz ere merkeagoa da, eta emagin bi dituzu zugaz. Ospitalekoa garestiagoa da, eta emagin batek paziente asko ditu.

“

**Berdintasun erreala gura badugu, amatasun eta aitatasun bajak luzeagoak eta berdina izan beharko lirarteke”**

#### **Zure inguruan zein erreakzio jaso zenuen etxean erdituko zinela esaterakoan?**

Lagunartean detaileak ezagutu gura zituzten. Esango nuke harrera oso ona izan duela. Batzuek esan didate planteatuko dutela.

Lanean ez da horrela izan. Osasungintzako profesionalok mesfidatienak gara etxean erditzeko kontuagaz. “Zergatik, arrisku batzuk asumitu beharrezkoa ez denean?”, esaten zidaten. Nire erabakiaren berri eman nuenean, erantzunik negatiboak lankideen aldetik etorri ziren. Animatu egiten dut jendea inguruan sanitarioen badu eta arriskutsua dela esaten badio, daturen bat ba ote duen galdetzeko. Adibidez, heriotza perinatalaren intzidentzia galde diezaiotela. Ziurrenik ez dute datuetan oinarritutako argudiorik izango. Inertziak esaten dute.

#### **Zeintzuk dira esku artean dituzun datuak?**

Ingalaterran, Herbeheretan, Canadian, AEBetan... badaude datuak. Hemen, ostera, datuak ez daude hain eskuragarri. Esate baterako, arrisku baxuko haurdunaldien erditzeetan, heriotza perinatala lehenengo hilean 0,5-1 litzateke 1.000 jaiotzako etxean

“

**Ez dut Izarnerengan sinistu behar. Sinistu behar dut Izarnekin emakume lez dakien horretan”**

—

erdituta. Ospitalean tasa berdina da. Etxean erdituz gero, ostera, interbentzio obstetrikoko (episotomia, zesarea...) gutxiago daude. Beraz, etxean erditzea ez da ospitalean erditzea baino arriskutsuagoa.

#### **Kontziliazioa ez da existitzen eta zaintzaren inguruan erabakiak hartzea ez da erraza izaten.**

Patriarkatuak oso ondo egin du bere lana. Uste genuen momentu batean etxean egotetik lan mundura irtengo ginela. Alde batetik, andre askok lan handia egin zuten emakumeok lan munduan egoteko. Bidea zabaldu ziguten. Baina, beste alde batetik, zenbat eta arinago bueltatu lanera, norentzat da mesedegarri? Guretzat, umeentzat ala sistemarentzat? Baina etxean geratzen bazara, profesionalki ez zara haziko. Orduan, zein da erabakirik onena? Norberak erabakitzen duena. Zeuk aukeratutakoa bada, horregaz egongo zara

“

**Osasungintzako profesionalok mesfidatienak gara etxean erditzeko kontuagaz”**

—

ondo. Zu gustura eta lasai egotea da umeak behar duena, eta hori bada zure aukera, ume horregaz disfrutatuko duzu zauden denbora zaudela. Ez litzateke sentitu behar umearengatik sakrifikatu zarela. Horregatik, ahalduntzea oso garrantzitsua da haurdunaldian, ondoren hartuko dituzun erabakiak hartzeko. Zeu zara zure umea gehien maite duena. Argi dago bakoitzak bere umearentzat onena izango den erabakia hartuko duela. Horretan inork ez du ezer esaterik. Askotan, superwoman konplexua izaten dugu.

#### **Ildo horretan, badago zer hobetu.**

Berdintasun erreala gura badugu, amatasun eta aitatasun bajak luzeagoak eta berdina izan beharko lirarteke. Bestela, ez gara sekula ere aukera berdintasunean egongo.

## Enpresen berrikuntza sustatzen duen Hazzinova zerbitzua aurkeztu dute, aste honetan, Durangon

Durangon aurkeztu duten ekimenak 6 eta 99 langile bitarteko enpresei berrikuntzara gerturatzeko aukera eskaintzen die

**DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR** Enpresa txiki eta ertainei ekoizpen eta kudeaketa teknologia berriak hurbildu eta berrikuntzaren aldeko apustua egiteko asmoz, Hazzinova zerbitzuaren aurkezpena egin zuten, atzo, Durangaldeko Enpresa Elkar-tearen egoitzan. Innobasqueko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Politiken zuzendari Alaitz Landaluzek jakitera eman duenez, hiru hilabeteko iraupena duten proiektuetan enpresek agente baten laguntza izango dute prozesu guztian zehar, eta zerbitzu hori doakoa izango da. "Gainera, zerbitzu horrek arlo bi sustatuko ditu. Alde bate-tik, enpresen antolakuntza, eta, bestetik, enpresak nola saltzen dituzten euren produktuak",

azaldu du Landaluzek. Horrez gainera, ekimen horretan parte hartzen duten enpresa bakoitzaren beharretara egokitzea dutela helburu jakinarazi dute antolatzaileek. "Merkatuan jarraitzeko, berrikuntza oso garrantzitsu da. Merkatuaren abiadura

oso handia da eta, hor egoteko, aldaketak egitea oso garrantzitsu dela iruditzen zaigu. Beraz, Euskadiko enpresa txiki eta ertainak ekimen honetan parte hartzera animatu gura ditugu; lehiakorrak izatea behar beharrezkoa da", esan du Landaluzek.

### Elkarretaratzea

Hazzinovaren aurkezpenean Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta hainbat enpresari zeudela kontuan hartuta, sindikatuek elkarretaratzea egin zuten Durangon, Bizkaiko metalgintzako hitzarmen "duin" baten alde.



Durangaldeko enpresetako hainbat ordezkari batu ziren egueneko aurkezpenean.

## Durangoko Udalak inkesta bat ipini du martxan bizikletaren erabilera ikertzeko

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Bizikleta erabiltzen duten herritarren ohiturak zeintzuk diren jakiteko, Durangoko Udalak inkesta bat ipini du martxan. "Inkestaren helburua, besteak beste, herritarrek bizikleta zertarako, noiz eta nondik ibiltzeko erabiltzen duten jakitea da", azaldu dute udaleko iturriek. Inkestak uzten dituen emaitzak kontuan hartuta, bizikletaren erabilera eta honi dagokion azpiegituran hobekuntzak egin gura ditu udalak. Ikerketan parte hartzeko, durangarrek udalaren webgunera jo beharko dute, eta bertan ageri den galdetegia erantzun. Epea zabalik dago jadanik eta hilabete iraungo du gutxi gorabehera. Mugikortasun Astearen baitan kokatutako ekintzetariko bat da inkesta.

## Durangoko ikasleek trafiko istripuen ondorioei buruzko gogoeta egin dute

Istripuek kaltetutako alde guztien testigantzak helarazi dizkiete gazteei, San Agustin kultur gunean



Durangoko Javi Sanchez udaltzainak (eskuman) istripuetan bitzikoa erri eman du.

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Suhiltzaile, ertzain, udaltzain zein istripuan elbarri gelditutako herritarrena. Guztien testigantzak helarazi dizkiete Durangoko ikasleei, trafiko istripuek izan ditzaketen ondorioei buruz gogoeta egitera bultzatzeko. Mugikortasun Astearren barruan, *Don't be dummy*, *Zuk ez duzu ordezkorik* gogoeta saioa antolatu dute eta 15etik 20 urtera bitarteko ikasleek parte hartu dute bertan aste osoan zehar. Bideo proiektzioak eta istripuek eragindako alde guztien berbaldiak tartekatu dituzte jardunaldietan. Aho bazarrik barik erakutsi dituzte istripuen ondorio gordinak. Rosa Trinidad STOP Accidentes elkartearen bozeramailea ere bertan izan da gogoeta saioa jarraitzen. "Argi dut mezua heldu, heltzen zaiela gazteei. Oso irudi gogorrak dira; bizimoduan tragediak ere badaudela erakusten dute. Gainera, istripuak eragindako alde guztien ahotsa ikusarazten da", esan du. Durangoko 7 ikastetxek parte hartu dute.

## Adinekoentzako lau ibilaldi antolatu dituzte irailaren 27rako

Eskualdeko herrietatik abiatutako ibilaldiak Abadiñoako Gaztelua auzoan elkartuko dira, Traña-Matienara elkarregaz joateko

### DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Bizidun elkarteak, Durangoko Udalak eta Amankomunazgoak hainbat ekintza antolatu dituzte elkarlanean Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunaren harira. Eki-

abiatuko dira, eta Abadiñoako Gaztelua auzora heltzen direnean, bat egingo dute denek. "Modu horretara, batasunak indartu egiten gaituela adierazi gura dugu", azaldu du Bizidun elkartearen kidea den Koldo Goikoleak. Traña-Matienako plazan amaituko da ibilbidea.

### Ibilaldietarako izen ematea irailaren 24an amaituko da eta hainbat tokitan egin daiteke

Ibilaldietan parte hartzeko izen-ematea irailaren 24an amaituko da. Hainbat tokitan egin daiteke: herri bakoitzeko nagusien elkarteak, Durangoko Adinekoen Udal Egoitzan eta Amankomunazgo Adinekoen Zerbitzuan.

men nagusia irailaren 27an izango da. Luzera desberdineko lau ibilbide prestatu dituzte; luzeenak 14 kilometro ditu, eta laburrenak, kilometro bat pasatxo. Ibilaldiak Durangaldeko hainbat herritatik

Bigarren ekintza nagusia irailaren 30ean izango da. Psikologo batek *La soledad: algo más que vivir sin compañía* izeneko berbaldia eskainiko du Jesuitak Ikastetxeko Arrupe Aretoan, 18:00etan.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2019ko irailaren 20a  
17. urtea - 776. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

2015 **Bikam**  
Bikam  
Bikam

PEFC  
Produktu hau  
kontrolatutako  
inbentzio medietan  
egina dago, berrikuntza  
deklarazioa  
www.pefc.es

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Elkartekin eta auzotarrekin batera antolatutako 200 ekitaldi baino gehiago egongo dira San Faustoetan

Pentsiodunen plataformak jaurtiko du jaietako txupin nagusia. Umeen eguneko txupin txikia, Zabalarra eskolako June Leturiagak eta Luken Totorikaguenak botako dute. Auzo elkarteek eskainitako laguntza eskertu du udalak

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Gustu eta adin guztietarako 200 ekitaldi baino gehiago, txupin bi, auzo elkarten babes eta jai egiteko gogo. Gutxi gorabehera, osagai horiekin laburtu liteke aurtengo San Faustoetako menua. Antolatzen moduari dagokionez, elkarten eta auzo elkarten partetik "gero eta prestutasun gehiago" igartzen hasita daudela adierazi dute udal gobernu taldeko kideek, eta borondate hori eskertu dute. Udal gobernu taldeko Juan

**Jaiak urriaren 11tik 20ra ospatuko dira; egitaraua ANBOTOn web orrian dago ikusgai**



Txupin nagusiko eta txikiko protagonistek eta udal ordezkariak atzo aurkeztu zuten egitaraua.

Antonio Bueno zinegotziak adierazi du hasiak direla jaiak "herriko erdigunetik auzoetara zabaltzeko lehenengo pausoak" ematen. Horren erakusgarri dira, besteak

beste, Magdalena, Aramotz eta Murueta Torre inguruetan antolatuko diren ekitaldietariko batzuk. Jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak "poz handiz" hartu du txupin nagusia jaurtitzeko proposamena.

Euren aldarrikapenagaz segituko dutela ere aurreratu dute, "oraingo eta etorkizuneko pentsioen defentsan". Zabalarra eskolako ikasleak ere pozik agertu dira. "Pregoa idazteko boluntario asko egon da

eskolan", esan dute. Aurreratu dutenez, bertsoak kantatuko dituzte bakoititik. San Fausto jaiak urriaren 11tik 20ra ospatuko dira, eta egitarau osoa ANBOTOn webgunean dago eskuragarri.

## Boto-emileen erdiek baino gehiagok babestutako kartela

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

San Faustoak iragartzeko kartel lehiaketan, Mikel Gabiola lekeitiarraren lana izan da irabazle. Kartelak Durango denontzat du izenburu eta beste sei lanen artean gailendu da. 499 herritarrek eman dute botoa, eta horietako 269k egin dute Gabiolaren diseinuaren alde, erdiek baino gehiagok. Durangoko arteagaz zerkusia duten pertsonen osatutako epaimahaia zazpi lan onetsi zituen, eta irabazlea herritarrek erabaki dute irailaren 7tik 12ra bitartean egindako bozketan.



## Durangoko Txosna Batzordea prest dago jairako "gune aske eta osasuntsu bat" sortzeko

Eixu artisau azoka edo Buru eta Bihotz jolas librea programatu dituzte egitarauan. Ernai gazte erakundeak jaurtiko du txupina, bere 40. urteurrenagaz bat eginda

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Oraindino aste batzuk falta diren arren, Txosna Batzordeko kideak irrikan daude jai egiteko. Asteon aurkeztu dute egitaraua, eta txosnagunera joateko deia egin diete herritarrei. "Denon ardura da giro osasuntsu eta aske bat sortzea", adierazi dute. Aurten, emakumeen eta euskararen presentzia indartzeko asmoa dute,

**Liher, Ganorabakuek, Adrenalized, Luhartz eta Dupla taldeek alaituko dute gauroa**

eta hori bermatzeko, egitarau "anitza" dute esku artean. Bertako ekintzarik parte hartzaileenak "paella eta tortilla txapelketak" izango dira. Eixu artisau azoka eta

Buru eta Bihotz jolas librea egongo direla ere iragarri dute. Gauroa Liher, Adrenalized, Ganorabakuek, Luhartz eta Dupla taldeek alaituko dute, besteak beste. Mozorro egunerako, urriak 19, munduko jaiak eta ohiturak ipini dute gaia. Ernai gazte erakundeak jaurtiko du aurten txosnetako txupina. Gazte erakundea 40 urteko ibilbidea ospatzen ari da aurten.



Durangoko Txosna Batzordeko kideek martitzenean egin zuten agerraldia.

# Martxan da Anbotoren Udako 5. argazki lehiaketa

Bidali zure argazkiak ekainaren 28tik irailaren 22ra bitartean, [www.anboto.org](http://www.anboto.org) helbidera

Animatu eta parte hartu!

## UDA KO 5. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto komunikabideak

# “Prest gaude jolasgunea moldatzeko, baina ez botatzeko”

Atxondoko hainbat guraso sinadurak biltzen dabilta Ziarreta auzoaren atzean dagoen jolasgunea bota ez dezaten

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Atxondoko guraso talde batek auzo-lanean egindako jolasguneak polemika piztu du herrian. Joan zen astean, Atxondoko alkateak ANBOTOrri baieztatu zion "segurtasun neurriak betetzen ez zirenez" jolaslekua bota egingo zutela. Dena dela, gobernu taldekoek gurasoen "haserrea" ulertzen dutela eta kontua aztertzen dabiltzala diote. Irtenbide bat aurkitzeko lanean dabiltzala ere jakitera eman dute. Bitartean, ezin daiteke jolasgunea erabili.

**Hainbat gurasok egin duzuen jolasgunea itxita dago, eta, beharbada, bota egingo dute. Nola hartu duzue erabakia?**

**Naiara Gongeta:** Harrituta gaude. Uda hasieran udalak albiste bat kaleratu zuen gurasooi eskerrak emateko egin genuen lanagatik. Hala ere, euren ardua zela jolasguneak araudia eta segurtasun neurriak betetzea.

**Alaine Garitagoitia:** Orduan, gobernu taldeagaz batu ginen, eta parkea legezatzeko eman beharreko

pausoak zeintzuk ziren ikusteko gelditu ginen. Bilera horretatik egun bira, udalak ohar bat kaleratu zuen. Segurtasuna bermatzeko egin beharreko aldaketak egingo zituztela zioen oharrak. Hori irakurrita, aldaketak egingo zituztelakoan geunden.

**Baina oraingoz ez da aldaketarik egon parkean, eta itxita jarraitzen du.**

**A.G.:** Abuztuan udaleko arkitektoagaz batu ginen. Hainbat arauhauste zeudela eta jolasgunea bota egin behar zela esan zigun. Txosten hori emateko eskatu genien, arkitektoak planteatzen zituen arazoak zein arauen arabera ziren jakiteko. Baina hile eta erdi pasatu da, txostenaren

“

**Profesional batzuekin egon gara eta, eurek diotenez, jolasgunea ez da horrenbeste aldatu behar”**

zain jarraitzen dugu eta jolasgunea bota gura ei dute.

**Jolasgunea konpondu daitekeela diozue. Zertan oinarritzen zarete?**

**N.G.:** Profesional batzuekin egon gara eta, eurek diotenez, jolasgunea ez da horrenbeste aldatu behar legearen barruan egoteko. Beraz, aldatu ditzagun aldatu beharre-



Alaine Garitagoitia eta Naiara Gongeta

“

**Zerbaitek araudia betetzen ez badu, edo konpondu ezin bada, kendu egiten da”**

koak. Jolasgunea moldatzeko prest gaude, baina ez botatzeko. **A.G.:** Segurtasuna bermatzea garrantzitsua da, eta prest gaude zerbaitek kendu behar bada kentzeko. Zerbaitek araudia betetzen ez bada, edo konpondu ezin bada, kendu egiten da. Ez dugu inongo arazorik jolasgunea moldatzeko.

## Durangaldeko erlezainek Erlete elkarteak aurkeztu diete herritarrei

Durangaldeko hamabost erlezain buru-belarri ibili dira lanean azken hileetan, eztiola baten proiektua martxan ipintzeko asmoz; dagoeneko martxan dute lokal bat Axpen

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Durangaldeko hamabost erlezain Erlete elkarteak batu dira, eztiola baten proiektua martxan ipintzeko asmoz. Erlezainek Axpen duten lokalean ateratzen eta ontziratzen dute eztiola.

Joan zen zapatuan, Axpen, euren proiektua aurkeztu zuten herritarren aurrean. Aurkezpenean, elkarteko kideek eskerrak eman zizkieten proiektua aurrera ateratzen lagundu dieten enpresa eta administrazioei. Horrez gainera, lehen sektoreko beste aktibitate batzuetan dabilzan kideei horrelako proiektuen eta amankomunean egiten diren ekimenen aldeko apustua egitera dei egin zieten.



Jendetza batu zen zapatuko aurkezpenean.

## Amaitu dituzte Olaburu inguruko lanak, oinezkoentzako lekua handitzekoak

Udalak 98.000 euroko aurrekontua izan du lanotarako



Lan hauekin segurtasuna handitu gura izan dute.

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Eskola eremura edo Etxego gaztelekura sartzeko bidean, aparkalekuak kendu eta ingurua egokitu du udalak oinezkoen lehentasuna emateko. Miradore izateko balio lezakeen plataforma bat sortu

dute eskailera batez. Ingurua osatzeko, led argiteria eta iturria ere ipini dituzte. 98.000 euroko aurrekontua duten lan horiekin, udal arduradunek oinezkoentzako lekua handitu eta segurtasuna irabazi gura izan dute.



100% PAPER BIRZIKLATUA

# EUSKARAZ PRAKTIKATU NAHI? LAGUN BERRIAK EGIN NAHI?



#PRAKTIKATUETA BIZI  
11 AUKERA EUSKARAZ PRAKTIKATU ETA BIZITZEKO



## DURANGALDEKO Berbalagun

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat:

Berbataldeak >Gurasolagun >Tailerrak >Txangoak >Mintzodromoak

639 400 786

[www.durangaldea.blogspot.com](http://www.durangaldea.blogspot.com)

[durangaldea@aek.eus](mailto:durangaldea@aek.eus)

Durangaldeko Berbalagunak | Facebook

Sustatzaileak



Babesleak



praktikatu



# CIE Inyectametaleko langileek greba bertan behera utzi dute enpresagaz akordioa hitzartuta

Abadiñoko enpresako langile guztiek, 250ek, abiatu zuten greba joan zen domekan, irailak 15



Domeka gauan langileek hiru asteko greba abiatu zuten.

**ABADIÑO • ARITZ MALDONADO**

CIE Inyectametaleko enpresa batzordeak (4 ordezkari LABek, 3 ELAK eta 2 CCOOek) lau urterako akordioa adostu zuten enpresaren zuzendaritzagaz, atzo eguerdian.

Domeka gauan, irailak 15, langileek hiru asteko greba abiatu zuten. Deitzaileek "hitzarmen duin" bat eskatzen zuten. Horrez gainera, kontratazio politika aldatzeko eskatzen zioten enpresari. "Langileek

argi zeukaten hitzarmen berriaren helburua zein zen: kalitatezko enplegua sortzea, enplegua bermatzea eta aberastasunaren banaketa justuago bat egitea", azaldu du Enpresa Batzordeak. "Enpresa kon-

prometitu da iazko irabaziak banatzeraz", azaldu dute sindikatuetatik.

Enpresa Batzordea otsailetik hona dabil hitzarmen berria negoziatzen, baina orain arte ez dute adostasunik lortu. Sindikatuak

enpresaren jarrera ere salatu izan dute. Orain, akordioa adostuta, Enpresa Batzordea pozik dago akordioa lortzeagatik eta baita enpresako langileen mobilizazioagatik ere.

**CIE talde osoan**

Abadiñoko plantan ez ezik, "prekaritatearen aldeko apustua" CIE talde osora zabaldu dela ere salatu izan dute sindikatuak. "Langile finkoak kendu eta aldi

**Enpresa Batzordea otsailean hasi zen hitzarmen berria negoziatzen**

baterako langileen enpresetako langileak sartu gura dituzte, eurentzat moldagarriagoa dena lortzeko", azaldu dute LABeko kideak.

**Manifestazioa Bilbon**

Bizkaiko metalgintzako sindikatuak grebara deitu dute irailaren 30etik urriaren 4ra arte. Deialdia babesteko, ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK, CGT, USO eta CNT sindikatuak manifestaziora deitu dute zapatu honetarako, irailak 21. Mobilizazioa 12:00etan abiatuko da, Bilboko Euskadi plazatik.



Herritarrek plana idatzi duen taldeagaz egon ahal izango dira.

## Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ikusgai Abadiñon

Dokumentua abenduaren 9ra arte egongo da ikusgai, udaletxeko batzargelan eta Errota kultur etxean

**ABADIÑO • A.M.**

HAPOaren dokumentua hiru hilabetez egongo da ikusgai, abenduaren 9ra arte. Horrela, herritarrek ekarpenak egitea ahalbidetu gura dute udal gobernuak. "Plan Orokorren helburu nagusietariko bat herria urbanistikoki batzea da, batez ere, Zelaieta, Ma-

tiena eta Muntzaratz herriguneak, baina ez bakarrik gune horiek", adierazi du Mikel Garaizabal alkateak. Herritarrek plana idatzi duen taldeagaz egoteko aukera ere izango dute, hitzordua aurrez eskatuta. Urriaren 9, 16 eta 23rako, eta azaroaren 6, 13, 23 eta 27rako eskatu daiteke hitzordua.

## G7aren aurkako protestetan atxilotutako gazte abadiñarra gaur epaituko dute, Baionan

**ABADIÑO • EKAITZ HERRERA**

Joan den abuztuaren 23an Urruñan G7ko goi bileraren aurkako manifestazio batean parte hartzeagatik atxilotutako gazte abadiñarra gaur epaituko dute, Baionan. "Legez kanpoko manifestazio batean parte hartzea eta polizia

etorritakoan manifestazioa desegiteari uko egitea leporatzen didate", adierazi dio gazteak ANBOTOrri. "Urtebeteko espetxe zigorra da epaia izan dezakeen ondorio larriena. Dena dela, abokatuaren esanetan, baliteke dena isun batean geratzea. Beharbada, Pirinio

Atlantikoetara (Ipar Euskal Herriko eta Biarnoko lurretara) ezingo naiz bolada batean joan", azaldu du. Abadiñoko Ezker Abertzaleak elkarretaratzera deitu du gazteari babesa emateko. Kontzentrazioa Txanporta plazan izango da, gaur, 19:30ean.

## Hontza Museoaren erakusketa berriak leize-hartz baten eskeletoa erakutsiko du

Denboraldi berriko erakusketa urriaren 14an inauguratuko dute Mañariko museoan

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Mañariko Hontza Museoak erakusketa berriak antolatzen ditu aldiro, eta laster inauguratuko dute hurrengo, urriaren 14ko astelehenean, hain zuzen ere.

Erakusketa berriko protagonista nagusia orain milaka urte Europako zatirik handienean bizi izan zen animalia bat izango da: Leize-hartza (*Ursus spelaeus*). Mañariko Askondo kobazuloan ere aurkitu

**Leize-hartza Europako zatirik handienean bizi izan zen orain dela milaka urte**

izan dituzte hartz espezie horren gaineko aztarnak. Urriaren 14tik aurrera, leize-hartzaren eskeleto oso bat egongo da ikusgai Hontza Museoan.

Horrez gainera, leize-hartzaren gaineko azalpenak eskainiko dituen panel informatiboak ipiniko dituzte eskeletoaren inguruan. "Panel horietarako testuak lantzen gabiltza egunotan", adierazi du Enrique Huerta museoaren zuzendariak. Lan horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateko Paleontologia Saileko ikertzailea den Asier Gomezen laguntza izango dute.



# Mireia Elkoroiribe jeltzaleak "ohore eta ilusio handiz" hartu du Amankomunazgoa gidatzeko erronka berria

Amankomunazgoko agintaritza EH Bilduren eskuetatik EAJren eskuetara pasatu da. Elkoroiribe da erakundeko presidente berria, bere alderdikideen eta Abadiñoako Independienteen babesagaz. Lan ildo nagusietako batzuk lehiakortasuna, turismoa, ongizatea edo airearen kalitatea izango direla aurreratu du

## DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Aurreikuspenek EAJren aldean jartzen zuten balantza, eta zalantza guztiak 27 ordezkarien boto sekretua zenbatuta aldendu ziren: Ane Abanzabalegik (EH Bildu) 13 boto jaso zituen, eta Mireia Elkoroiribek (EAJ) 14. Elkoroiribek bere alderdikideen eta Abadiñoako Indepen-

### Abanzabalegi (EH Bildu) hautagaiak emaitza jakin berritan zoriondu zuen Elkoroiribe

dienteen botoagaz eskuratu zuen presidentetza. Horrenbestez, botere aldaketa izan da Amankomunazgoaren agintaritzan. EH Bilduren eskuetatik EAJren eskuetara pasatu da hurrengo lau urteetarako.

Udalbatzak txalo zaparradagaz eskertu zituen hautagai bien asmo onak. Emaitza jakin eta berehala, Abanzabalegik zorionak eman zizkion Elkoroiriberi, eta ekitaldiaren



Azken lau urteetan presidente izandako Aitor Lopezek zorionak eman zizkion Elkoroiribe presidentei berriari.

amaieran gauza bera egin zuen orain arte presidente izandako Aitor Lopezek (EH Bildu) ere. Hain zuzen ere, Lopez zaldibartarra izan da azken lau urteetan Amankomunazgoko presidente karguan egon dena, Herriaren Eskubidea al-

### "Erronka honek Durangaldeari bultzada eder bat emateko aukera paregabea zabaltzen du"

derdiaren laguntzagaz. Presidente izendatu berritan, poza aitortu zuen Elkoroiribek: "Ohore eta ilusio handiagaz hartzen dut erronka berri hau, Durangaldeari bultzada eder bat emateko aukera paregabea zabaltzen baitu".

## Enplegua lehentasun

Hemendik aurrerako lan ildoan artean, Elkoroiribek Durangaldearen izaera industrial nabarmendu zuen: "Eskualdeak duen potentziala aprobatu behar dugu kalitatezko enplegua eta gazteentzako enplegua sortzeko". Hain zuzen ere, horretan ipini zuen

### "Eskualdean langabezia dauden 4.375 herritarrentzat lan egingo dugu"

arreta: "Hori izango da helburu nagusietariko bat. Langabezia tasa erlatiboki baxua da Durangaldean, baina egoera horretan dauden 4.375 herritarrentzat lan egingo dugu". Ongizatea, lehiakortasuna eta turismo eskaintza garatuko dituela ere aurreratu zuen. Bestalde, Abanzabalegik egin zuen bezala, airearen kalitateagatik kezka agertu zuen, eta horretan ere lan egingo dutela aurreratu zuen.



## GLC Berria. Izaera inkonformista.

Hurrengo lorpena hobea izango delakoan, lortutakoaz gozatzea kostatzen bazaizu, biok ikuspegi bera daukagula esan nahi du, eta horixe da SUV arrakastatsuen berrasmatzera eraman gaituena. Ikusi GLC Berriak daukan moldakortasun berritzailea eta ahotsaren bidez eragiten den MBUX adimen artifizialeko sistema aurreratua.

GLC Berria 220d 4MATIC SUV 48 kuotatan:

### 450€/hilean<sup>1</sup>

Sarrera: 12.378,80€ / Azken kuota: 27.197,79€ 2  
Irekitze-komisioa: 1.138,72€. ITN: %7,99 / UTB: %9,38

Ziklo nahasian kontsumoa: 8,2-9,2 (l/100 km).  
CO2 isurtzea: 186-208 (g/km) (NEDC:162-169).



Mercedes-Benz

## Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionarioa  
Boroa enpresa-parkea, 2A-3 part. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47. [www.aguinaga.mercedes-benz.es](http://www.aguinaga.mercedes-benz.es)

<sup>1</sup>Finantzaketa-adibidea: GLC 220d 4MATIC SUV, J.P. 50.463€ (zergak, garraioa, markaren hobaria eta finantzatzeko kontzesionarioa barne. Aurre-entregatze gastuak kanpo), Mercedes-Benz Financial Services España, F.F.C., S.A. ren Alternative-ri esker. Bruselas etorbidea, 30 - 28108 Madril. Ballozkoak: 2019/10/31ra arte egindako eskaintzak, 2019/11/15era arte onartutako eskaintzak eta 2019/12/31ra arte aktibatutako kontratuak, atzera egiteko 14 laneguneko epea dagoela kontuan hartuta. Gutxienez, 24 hileko finantzaketa deringorrezkoa da. Finantzatu beharreko zenbatekoa 38.084,20€. Hilean 450€ 48 kuotatan, urtean 20.000Km, azken kuota 27.197,79€, sarrera 12.378,80€, ITN %7,99, irekitze-komisioa 1.138,72€ (%2,99), UTB %9,38. Guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 49.936,51€. Guztira epeko zenbatekoa 62.315,30€. <sup>2</sup>Azken kuotarako 3 aukera: ibilgailua aldatu, izulu (kontratuaren baldintzak betez gero) edo ibilgailua eskuratu, azken kuota ordaindu ondoren. Argazkiko modelo agian ez dagoen eskaintza. Informazio gehiago [www.mercedes-benz.es-en](http://www.mercedes-benz.es-en).



## "Kartzelara ez joateko ez ezik, akordioak presoan egoera mahai gainean ipintzeko balio izan digu"

Aldeen arteko akordio bati eskerrak, Egoitz Lopez de Lacalle auzipetu otxandiarra ez da kartzelara joango

**OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO**

47 euskal herritarren kontrako epaiketa hasi eta segituan amaitu zen astelehenean, aldeen arteko akordio bati eskerrak. Ondorioz, auzipetuta zeudenetatik, 45 lagunek ez dute kartzelara joan behar, eta euren artean dago Egoitz Lopez de Lacalle otxandiarra. Arantza Zuluetak eta Jon Enparantzak,

ostera, hile batzuk eman beharko dituzte espetxean.

Akusatuek banan-banan deklaratu zuten eta leporatutako gertaerak onartu zituzten. Behin hori eginda, fiskalak zigor eskaera berriak egin zituen, aurrekoak baino baxuagoak, alde biek aurretik adostutako akordioari jarraituz.

Ondoren, epaileak etenda utzi zituen zigor horiek. Arrazoi horregatik, 45 pertsona horietako inor ere ez da kartzelara joango, nahiz eta aurrekariak izan.

Lopez de Lacalleren esanetan, auzipetu guztiek "aspalditik" pentsatua zuten horrelako aukeraren bat sortuz gero, hartaz baliatzea, baina "azkenengo egunetara arte ez zen adostasuna gauzatu".

Azkenaldian zeresan handia eman du epaiketak. "Hasieratik argi geneukan atentzioa ez zela guran zentratu behar, gu atxilotu aurretik genbiltzan lan horretan baino, hau da, preso eta exiliatuen eukal herriratzean. Kartzelara ez joateko ez ezik, akordio honek preso eta exiliatuen gaia berriro mahai gainean ipintzeko modua eman du. Horixe zen helburua", azaldu du.

### Zaldibarko korakak kontzertua eskainiko du Gontzal Mendibilegaz batera

**ZALDIBAR • A.M.**

Urriaren 5ean, Zaldibarko korakak eta Elorrioko Berriotxoa abesbatzak kontzertu berezia eskainiko dute Gontzal Mendibile abeslari ezagunagaz batera. Emanaldia Zaldibarko frontoian izango da eta sarrerak bost euroan egongo dira salgai. "Jendea kontzertura etortzera animatzen dugu", adierazi du Jose Luis Maiztegi alkateak. Bestalde, urriaren 16an, Zaldibarko koraleko kideek Baionan eskainiko dute emanaldia.

### Opor osteko lehenengo berbaldia antolatu dute Izurtzako jubilatuen lokalean

**IZURTZA • J.D.**

Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoko Adinekoen Sailak antolatuta, hurrengo astean berbaldi bat egongo da Izurtzako nagusien lokalean. *Cómo superar una pérdida* izenburupean, hil diren pertsonen utzitako hutsuneari zelan aurre egin jakiteko gomendioak emango dituzte. Berbaldia datorren asteke eguaztenean izango da, 17:00etan. Gura duten denak bertaratu daitezke eta sarrera doakoa izango da.



Egoitz Lopez de Lacalle 2014an atxilotu zuten, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko Bitartekari Taldekoen kontrako sarekadan. L.ELORRIAGA

### Mallabiko Udalak dirulaguntzak emango ditu UEUko ikastaroetan parte hartzeko

**MALLABIA • J.D.**

Udako Euskal Unibertsitateak 19 ikastaro online antolatu ditu udazkenerako, Eibarren, Iruñean eta Gasteizen. Ikastaro asko irailan hasiko dira. Udalean ikastaro horietan parte hartzeko dirulaguntzak jaso daitezkeela gogoratu dute udal arduradunek ohar batean. Laguntza eskaerak eta eurak jasotzeko bete beharreko baldintzak udal txean eskuratu daitezke.

### Udal langileekin euskaraz berba egiteko gonbidatu dituzte berriztarrak

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

*Zergatik ez dugu tratu bat egiten?* lelopean, Berrizko Udalak kanpaina berri bat ipini du martxan. Euskara indartzeko asmoz, udal bulegoetan, Kultur Etxean, kiroldegian, ikastetxean eta osasun zentroan euskaraz egiteko gonbidapena egin diete herritarrei. Horrez gainera, euskararen erabilera sustatzeko lan egingo dutela jakinarazi dute.

## The Orquest Man, + Palmas eta Altxa Porru musika taldeek girotuko dituzte Ogenbarrena auzoko jaiek

Azken urteotan ohitura bihurtu den indaba txapelketak ez du hutsik egingo. 10:00etan hasiko da lehiaketa, zapatuan, eta 14:00etan entregatu beharko dira kazolak

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Zornotzako Ogenbarrena auzoa ospakizunez beteko da asteburu honetan. Ekitaldiak atzo hasi ziren arren, gaur 17:45ean botako duten txupinagaz emango diete hasie-

ra jaiei auzotarrek. Ugasixo eta ping-pong txapelketekin, zumba saioekin eta The Orquest Manen emanaldiagaz segituko du jaiek gaur. 22:30ean karaokea hasiko da eta horregaz amaituko da egu-

na. Biharko, makina bat ekitaldi dituzte aurreikusita. 10:00etan, jada urteroko ohitura bihurtu den indaba lehiaketa hasiko da. Txapelketak bederatzigarren edizioa du aurtengoa. Bertan parte hartzen

dutenek 14:00etan aurkeztu beharko dituzte kazolak. Sari banaketa 14:30erako dago aurreikusita.

**Domekan, umeentzako puzgarriak eta pailazo talde baten ikuskizuna egongo dira**

Arratsalderako ere egitarau oparoa prestatu dute: 16:00etan apar festa

hasiko da, Joseba Dja egongo da musika ipintzen, mus txapelketa egongo da eta auzoko + Palmas taldearen kontzertuagaz jarraituko du egunak gero. 23:00etan, Altxa Porru taldearen erromeria egongo da. Domekarako, hainbat ekitaldi antolatu dituzte herriko umeentzat. 11:00etan puzgarriak egongo dira eta 13:00etan pailazoen ikuskizuna dago aurreikusita. Txistulariek kontzertua eskainiko dute eta 'Txoripoteoa' delakoagaz emango diete amaiera jaiei.

**uxarte**  
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com

ZABALIK  
OSTIRALETAN ETA  
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR  
ENKARGUZ  
Gutxienez 15  
laguneko taldeentzako

**GAER** DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



## Bazenekien...

Arbola baliotsu bat dago Garain, Etxeita auzoko zelai aldapatsu batean. Zuhaitz bakan edo bereziaren izendapena jasoa du bertako arteak, Etxeitako Artea lez ere ezaguna denak. 19 metroko diametroa eta 60 metroko zirkunferentzia ditu, azpian 300 ardiri gerizpea emateko beste. Momoitio gainean dagoen Santa Katalinako baselizaren inguruetatik joan daiteke bertara.

## Durangaldea asteen



### Hasita dago izen-ematea Banarte taldeak antolatutako antzerki tailerrerako

**Abadiño |** Tailerra urritik ekainera izango da, astean egun baten. "Tailer hau agertoki batera lehenengoz igo gura duten pertsonentzat dago diseinatuta. Adierazpen komunikatiboa garatzeko baliogarria da", adierazi dute Banarteko kideek. Tailerraren prezioa 450 euro da. Informazio gehiago: [banarte@gmail.com](mailto:banarte@gmail.com).

### Elorrioko EAJren ustez, EH Bildu "ezer egin barik" dago legegintzaldi hasieratik

**Elorrio |** 90 egunean udalak ez duela "ezer egin" kritikatu du Elorrioko EAJk prentsa ohar batean. "90 egun pasatu dira legegintza hasi zenetik, eta oraindino batzorde informatibo batera ere ez dute deitu. Kontuan hartuta hainbat gai daudela berba egiteko, garbiketako langileen greba, hainbat hirigintzako proiektu... ez dugu ulertzen", azaldu dute oharrean.

## Iritzia

### Bizkaiko Foru Aldundia iruzurretan

Gure Aldundiaren portaera arduragabearekin guztiz minduta nago. Alde batetik, Kalitatearen K horren adeko sustapen, laguntza eta zabalkundearekin harro dago eta, bestetik, 100 eta 300 urteren buruan baino iraungiko ez diren berunezko perdigoiek eta 60 urte baino gehiago degradatu gabe irauten duten kartutxoaren takoei sortutako kutsadura bultzatu eta onartzen du.

Ehiza garaian, gai kutsakor hauek gure ganaduak bazkatzen duen larretan eta kontsumituko ditugun ortuarietan aurkituko ditugu beti. Gero, aipaturiko hondakinak lasto-fardotan batuko dira eta elikaduraren katean sartuko. Kutsadura hau, inolako zigorrik gabe, Izurtzako Bitaño deritzon auzo zoragarrian gertatzen da oraindik, eta gure Aldundiak ez du ezer egiten. Gezurrik ez esateko eskatzen diet sikieran, eta "K" hori Kalitatearena izan dadin, eta ez Kartutxoarena.

Maribi Erdoiza Guerediaga eta hiru baserri gehiago.  
(Izurtza).

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

- Astialdiko begiralea • Astialdiko zuzendaria
- Jolas guneen eraldaketa: heziketa berdea eta ikuspegi feminista
- Indarkeriaren arrakalak • Hezikidetzan aditua
- Aniztasun funtzionala eta sexualitatea: hastapenak eta gehiago!



Urtxintxa  
Eskola  
[urtxintxaeskola.eus](http://urtxintxaeskola.eus)

2019-2020 ikastaroak

Matrikula  
zaitez!

Irailaren 27ra arte!  
+34 944 320445

CERAMICAS  
**MACOBER**

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO Tel.: 946 811 727

pedro  
juan  
J A T E T X E A

SAN ANTONIO, 1.  
48.240 BERRIZ BIZKAIA  
TEL: 94.682.62.46

# JAIIAK IURRETA 2019



**SAN  
MIGEL  
JAIIAK  
2019  
IURRETA**



**IRAILAREN 28TIK  
URRIAREN 6RA**



*Iurretako Udalak  
jai zoriontsuak  
opa deutsuez!*



**Iurretako jaiak 2019****Irailak 15**

**11:00** Beldur Barik Informazio gunea Askondon  
EZ ezetz da. Eraso sexistarik EZ!!

**11:00** Iurretako V. Herri lasterketa familiarra Askondon (Udala)

**Izen-ematea:** Irailaren 9tik 12ra bitartean  
Ibarretxe Kultur etxean

Gizarte-ongizate@iurreta.eus emailean.

Egunean bertan: 10:45ak arte Askondo kalean.

**Zenbatekoa:** 1€-koa da.

Jasotako dirua Osasuna Senegalen proiektuaren alde lan egiten duen La Otra Mirada elkartearentzat izango da

**Informazio gehiago** Ibarretxe Kultur Etxean

**13:30** Errifa solidarioa La Otra Mirada

**Irailak 21**

**8:30** Ahari soziala 95 Km (Bizikleta martxa bazkide eta lagunentzat).

**8:30** Erritmo suabekoak / 9:00 Bizkorragoak

**13:00** Aperitiboa Iurretan

**10:00-18:00** Futbol Festa Askondon (Gertasport eta IKT).

**12:00** Marmitako txapelketa kaskoan.

(Marmitakoa bertan egin behar da. Partaide bakoitzak bere osagarriak eta tresneria ekarri beharko ditu.) (Herriko tabernak).

**14:30** Marmitako aurkezpena.

**18:30** Asto probak. Gonbitez.

**Irailak 22**

**08:30** Iurretako X. Mendi Martxa. (Zaldai)

**Informazio gehiago** www.zaldaimenditaldea.org.

**11:00** XI. BTT - Eskolen arteko jardunaldia Berezin.

**17:00** Gazteen arteko Herri kirolak frontoian (Heki).

**17:00** Briska txapelketa plaza.

1- Arriaundi Egurrak emandako txapela + 100 €

2- Botila bat xanpain + 75 €

3- Botila bat ardo + 50 €

4- 25 €

**Irailak 26**

**18:30** Pilota partiduak.

Cafés Baqué, Promesen Txapelketako finalerdia.

**Irailak 27**

**14:00** Herriko Nagusien bazkaria, jarraian musika Uribesalgogaz. (Udala)

**18:00** Pilota partiduak. Mikel Deuna txapelketa (Olaburu pilota taldea).

**19:00** Antzerkia Ibarretxe Kultur Etxean "El burlador sin sardinas" (Anderebide).

**19:00** DJ-a Askondon (IU gazte).

**19:30** Korapiloak askatzeko unea da Dantzarin (Iurretako sare).

**Irailak 28 - San Migel bezpera**

**12:00** Montoitik txapligoak.

**12:05** Presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa eta brindisa (Iurretako Sare). Ondoren, kalejira dultzainero, erraldoi eta buru handiek alaituta

**12:30** Paella txapelketa eta bazkaria Etxegon (IU gazte)

**14:30** Gazte bazkaria plazan (G.A.)

**15:00** Atsedenerako tartea Etxego inguruan musikagaz (IU gazte)

**16:00** Altxorraren bila edo gynkana Etxego-Plaza inguruan (IU gazte)

**18:00** Ohiturazko Doniel-Atxa. Jarraian dantzarien azken entsegua.

**21:00** Erromeria LUHARTZ taldeagaz. Ondoren, DJ Ainhoa.

**22:00** Gorazarre Rocio Durcal-i Askondon (Udala).

**Irailak 29 - San Migel eguna**

**11:00** Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik Plazara.

**11:30** Meza nagusia.

**12:30** Dantzariak

**13:30** Dantza kantu poteoa Kantarelux taldeagaz.

**17:00** Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna.

Antolatzailea: Elorrioko Buskantza FKE

**19:00** Dantzari Dantza eta neskek egindako Soka dantza

**20:00** Eidabe Gora Kasete! Askondon (Udala)

**21:00** Erromeria ERREBAL taldeagaz

**Irailak 30 - Umeen eguna**

**17:00-20:00** Joko tradizionalak ume, gazte eta helduentzat (Euria eginez gero, Askondoko karpan)

**Urriak 3**

**18:00** Bingo Tombola Askondon, eta jarraian txokolatada

**Urriak 4 - Gau zuria**

**17:00** Graffiti erakusketa eta tailerra Bixente Kapanaga kalean

**18:00** Tortilla txapelketaren hasiera. Aurkezpena 20:00etan (G.A.)

**18:00** Ghanako txaranga

**19:00** Anderebide Elkartearen Asanblada Ibarretxe Kultur Etxean (Anderebide)

**21:00** Lotxo Taldea Askondon

**22:00** Bertsolariak: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga, Txaber Altube.

Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

**24:00** Rock Kontzertuak: NEBRASHKA, DUBE, TXAPITO GUZMAN ETA IBARRAKO LANGOSTINUEK

**Urriak 5 - Kuadrilla eguna**

**12:00** Antxo eta Pantxa pailazoen ikuskizuna plazan.

**12:30** Poteoa trikitalariekin

**14:30** Herri bazkaria plazan. Paella txapelketa.

Lehiaketan parte hartu gura ez baduzu ere, animatu herri bazkarira!

**17:00** Kuadrillen arteko jolasak

**18:00** Kalejira Elektrotufla taldeagaz

**22:00** HESIAN eta OXABI. Ondoren, DJ BULL.

**22:00** Los Otros Taldea "Gorazarre 70eko eta 80 hamarkadei" Askondon

**Urriak 6 - Errosario eguna**

**10:00-14:00** XXI. Nekazaritza eta Artisautza Azoka Andaparapen. (Udala)

**11:00** Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik Plazara.

**11:30** Meza nagusia

**12:30** Dantzariak

**13:30** Nesken Gomazko Paleta Zirkuitua, MPB saria

**17:30** Dantzarien kalejira herritik

**18:00** Dantza saioa. Talde gonbidatua: Duguna dantza taldea Iurretako dantzariak: Gorulari dantza eta Dantzari Dantza Ondoren, jaietako errifin zozketa.

**20:30** Erromeria eta herri afaria Roberto Etxebarria eta Idoia Markaidagaz

**22:00** Jaien amaiera ohiko bertsoak kantatuz

**Urriak 12 - Urriena**

**09:15** Belakortun zerrategiko aparkalekuan taldeen argazkia atera

**10:15** Kalejira aparkalekutik plazara herriari buelta emanez

**11:00** Meza Nagusia. Ondoren Dantzari Dantza eta Gorulari Dantza. Jarraian omenaldiak 65 urtetik gorakoei. Bukatzeko andra eta gizonen Soka Dantza

**15:00** Bazkaria (Askondoko karpan)

**18:00** Erromeria Luhartz taldearekin

**Mallabiena** 

**M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUA ERAIKUNTZA, S.L.**

Mallabiena industrialdea, 6  
48215 IURRETA  
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051  
mallabiena@mallabiena.com  
www.mallabiena.com

**AUTO-SERVICIOS NIFA, S.L.**

**VIA LIDER**  
PASIÓN POR SU VEHÍCULO

**KAMIOIAK (José Antonio)**  
Tel.: 94 681 26 04

**TURISMOAK (Roberto)**  
Tel.: 94 681 25 66

Mallabiena auzoa, 4  
48215 - Iurreta  
nifa@autoserviciosnifa.com

**TXIRULA MUSIK**

**TXIRULA MUSIK**  
Rel. Entzia, 5 Per 30; 48215 - IURRETA

**Zelai Alai**  
Hipika Eskola Iurreta

**ZELAI ALAI HIPIKA ESKOLA**  
Gaztañatza Auzoa - 48215 Iurreta - Bizkaia - 691746611

**BIKE&SNOW**

**UNDARRI**

Bizikleta salmenta, konponketa eta mantenua

Eski eta elur oholen konponketa

Bidebarreita N° 5 | 48215 -IURRETA (BIZKAIA)  
94 681 78 08 | www.undarri.eus

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

**AMAYA**  
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketaren errepidea)  
48215 IURRETA / Bizkaia  
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxes: 946 203 818  
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com  
www.amayaautoreparaciones.com

# Kuadrilla Eguna ospatuko dute, lehenengoz, Iurretako San Migel jaietan, eta nobedade nagusia izango da

Irailaren 28an Montoitik jaurtitako txupinazoagaz hasiko dituzte ofizialki San Migel jaiak; Errosario Egunera arte, urriak 6, jai giroa izango da nagusi



Jendetza batzen da jaien hasierako ekitaldian.

## JAIK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irailaren 28an Montoitik jaurtitako txapligoek jai giroz bustiko dituzte herriko kale eta bazterrak. Hala ere, jaien bueltan sortutako hainbat ekitaldi ospatu dituzte da-goeneke, eta jai giroan murgilduta dabilta iurretarrak.

Aurtengo sanmigel jaietako nobedade nagusia Kuadrilla Eguna izango da. Urriaren 5erako antolatatu dute. Jai Batzordeak jakitera eman duenez, ekimenak berritu eta jaietako ekitaldien eskaintza eraldatzeko asmoz erabaki dute Kuadrillen Eguna antolatzea, orain

## Aurten, Jai Batzordeak Kuadrilla Eguna antolatzea erabaki du, Mozorro Egunaren ordez

arte egin izan den Mozorro Egunaren ordez. Hori horrela, urriaren 5ean, herriko kuadrillen artean paella txapelketa egingo dute eta, horren ondoren, jolasak egongo dira. Gauean, Hesian eta Oxabi musika taldeek eta DJ Bullek girotuko dute Iurretako plaza.

## Gastronomia lehiaketak

Aurtengoan ere, urtero legez, gastronomia lehiaketak protagonista izango dira sanmigeletan. Zapatuan, irailak 21, marmitako txapelketa egingo dute kaskoan. Jaietako lehenengo lehiaketa izango da eta herriko tabernek antolatutakoa izango da. Bestalde, irailaren 28an eta urriaren 5ean paella txapelketak izango dira. Lehenengoa

## Aurtengoan ere, gastronomia lehiaketak protagonista izango dira San Migel jaietan

Etxegon egingo dute, IU Gaztek antolatuta, eta bigarrena herriko plazan, Jai Batzordearen eskutik. Azkenengo gastronomia lehiaketa urriaren 4an izango da. Gazte Asanbladak antolatuta, tortilla txapelketan batuko dira iurretarrak, herriko plazan.

## Errespetuz aritzeko deia

Jaietako egitaraua aurkezteaz gainera, Iurretako Jai Batzordeak jaiak alaitasunez eta errespetuz bizitzeko deia egin du, eta jaietan ez dutela eraso sexistarik onartuko azaldu dute.

 **SERAPIO CALVO**  
Pladur - Aislamientos - Escayola

**TABIKEAK, SABAIK, TRASDOSATUAK**  
Igeltso-dekorazioa  
Sabai desmuntagarriak • Isolatzeak

946 811 512 • 615 789 243  
Bidebarrieta, 9 • 48215 Iurreta  
info@serapiocalvo.es • www.serapiocalvo.es

  
**IURRETA KOPISTEGIA**

Bidebarrieta 1 Bajo  
48215 Iurreta (Bizkaia)  
Tel.: 94 681 10 70 Faxa: 94 466 82 60  
info@iurretakopi.com  
www.iurretakopi.com

 **IRIARTE**  
burdin lanak

Ertzilla Industrigunea, 2 - 17/18 pabiloiak  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 814 890 - Faxe: 946 816 245  
contacto@caldereriariarte.com

[www.caldereriariarte.com](http://www.caldereriariarte.com)

  
**@R3KA**

Gosari bereziak eta momentuan egindako pintxoak

Dantzari Auzunea, 4-5 / Iurreta

  
**GERLARI**  
KIROL ZENTROA

JORGE HURTADO Zuzendaria

622 753 458  
jorgehurtadonieves@gmail.com  
Dantzari kalea, 6 behe  
48215 Iurreta (Bizkaia)

  
**MOINBE BERRIZ S.L.**  
MONTAJES Y REPARACIONES INDUSTRIALES BERRIZ

**Instalazioak eta konponketak:**  
PRENTSA HIDRAULIKOAK  
PRENTSA MEKANIKOAK  
ELIKAGAILUAK  
MAKINEN BERRERAIKETA

Arriandi industrialdea, E - 37  
Tel: 94 681 24 06 - Mug: 609 34 87 76 - Fax: 94 681 50 89  
moinbeberriz@gmail.com / 48215 IURRETA / Bizkaia

# Zaldai taldea, hamarkada bat iurretarrei mendi aisialdia hurbiltzeko lanean

Iurreta jaietan murgildu aurretik, ohiko hitzordu bilakatu da Zaldai mendi taldeak antolatzen duten Mendi martxa



**MENDIA • ARITZ MALDONADO**

Hamar urtean antolatzen egon eta gero, Zaldairen mendi martxa Iurretako San Migeletan guztiz errotuta dagoen ekimena da. Aurtengoan ere, ibilbide bik osatuko dute martxa. Irailaren 21ean izango da aurtengoa, domekan.

Erlantz Zaldunbide Zaldaiko ki-deak oraindino gogoan du martxa antolatu zuten lehenengo aldia. "Sekulako euri zaparradak egin zituen eta 40 bat lagun batu ginen", azaldu du. Iaz, 600 lagunetik gora elkartu ziren martxan, eta aurtengorako eguraldiak lagunduz gero, kopuru hori gaintzea aurreikusten du taldeak. Hain zuzen ere, aurtengo nobedadeetako bat horri lotuta dago: ibilbide bietako irteera luzatu egingo da, sortzen ziren pilaketak arintzeko. "Paisaiatz gozatzeko moduko tartekak direla iruditzen zaigu, patxadaz ikustea merezi dutenak", gaineratu du Zaldunbidek.

## Abadetxearen errautsetatik

Iurretako Abadetxe gaztetxea 2006an erre zen, eta hainbat proiektu umezurtz geratu ziren; tartean, Zaldai. "Mendi aisialdiagaz loturiko ekimenak antolatzen ziren bertan, eta, erre ostean, proiektua aterperik barik geratu zen", gogoratu du Zaldunbidek. Mendi taldea sortu, eta herriratzeko aukerarik onena

mendi martxa antolatzea zela pentsatu zuten taldekideek. Orduetik, hainbat ekitaldi mota antolatu dute: urteberri egunean Gallandara igoera, abenduan Mendi Astea edo aurten hirugarrenez antolatu duten Mendi Erronka. Maiztegi guraso elkarteko gurasoekin elkarlanean, urtean zehar mendi irteerak ere antolatzen dituzte gazteentzat.

Iurretarrei mendia eta inguruak

“**Lehenengo martxan 40 bat lagun baino ez ginen batu, euria zela eta; iaz, 600 lagunetik gora etorri ziren**”

ERLANTZ ZALDUNBIDE

erakusteaz gainera, bestelako lan pedagogikoa egiten du taldeak. Aurtengorako, adibidez, Mugarri Eguna egin dute, Iurretako mugak ezagutzera emateko. "Zerbait desberdina egin gura genuen, herria ezagutzera emateko. Aurrerago, beste ibilaldi bat egin gura dugu, bertako biodibertsitatea ezagutarazteko", azaldu du Zaldunbidek.

## Boluntario sarea

Zaldaik inguruan duen boluntario sareatik ez balitz, ezingo lirateke ehunka lagun biltzen dituen martxa eta gainerako ekimenak antolatu. Hori dela eta, denei esker ona adierazi gura izan die Zaldunbidek: "Inguruan lagun asko ditugu laguntzeko prest, beti". Egun, 150 bazkide inguru ditu mendi taldeak, eta martxaren egunean 40 bat boluntariok laguntzen diete mendi taldeko kideei.

**Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**Smurfit Kappa**  
Nervión

**50 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

**- HEKi -**  
**HERRI KIROL KLUBA**

Tel.: 656 782 552  
heki.iurreta@gmail.com

Heki Herri Kirol Kluba

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak  
**Ondo pasa jaietan!**

**DESGUACES  
PILASTRA**

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketak
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

**Administrazioa, bajak eta faxa:** 946 218 079  
**Osagarrien salmenta:** 946 201 787  
**e-mail:** desguacespilastra@gmail.com  
 Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)

**DESARROLLO  
de SISTEMAS**

info@dds-online.net  
902 197 296 / 946 300 596

Txikerra kalea, 2-2 B-C  
ZORNOTZA  
[www.dds-online.net](http://www.dds-online.net)

**ALDEKOA-OTALORA** iturgintza  
**ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA**

info@aldekoaotalora.com - 692 859 779  
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO** - 944 071 791



## Ibilbide luzea

Ibilbideak 24,6 kilometro eta 1600 metroko desnibel positiboa izango ditu. Mugarraren magaletik abiatuta, Aramotz mendilerrotik igaroko da; tartean, Artatzagane (996 m) eta Leungane (1006 m) mendiak igoko dira. Iurretako plaza – Neberondo – Santa Lutzi – Katazka – Mugarrikolanda – Artatzagane (996 m) – Leungane (1006 m) – Inungane – Aramotzetik mendi zeharkaldia – Aizkorri (812 m) – Marmol – Landaederra – Santa Apolonia – Iurretako plaza.

## Ibilbide laburra

Ibilbideak 15 kilometro eta 636 metroko desnibel positiboa izango ditu. Ibilbidea Mugarraren magaletik pasatzen da eta erraza da, zailtasun teknikorik bakoa, ume zein helduentzat aproposa. Iurretako plaza – Neberondo – Santa Lutzi – Katazka – Marmolerako bidea – Landaederra – Santa Apolonia – Iurretako plaza.



Ibilbide luzeak 24,6 kilometro ditu.



Ibilbide laburak 15 kilometro ditu.

**Gauaigi**  
Dantzari, 4 - behea  
IURRETA

Egunero zabalik  
Domeketan eta jaiegunetan rabak  
Astelehenetik ostiralera: Menu erdia 6€-tan  
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak

**IBAI-ONDO**  
KAFETEGIA

Goizeko 06.00etatik  
aurrera gosariak eta pintxoak

Bixente Kapanaga, 11 • 48215 IURRETA  
☎ 94 620 21 57

**LA GIPUZKOANA**  
JATETXEA

Bixente Kapanaga, 2 - IURRETA  
Tel.: 946 811 005

Eguneko menua  
astelehenetik larunbatera.  
Menu bereziak enkarguz.  
Gosariak eta  
deneriko pintxoak.

INSTALAZIOAK  
ETA BERRIKUNTZAK

**ALDA** S.L.

- Iturgintza
- Berogailua
- Gasa
- Igeltserotza
- Gremioen koordinazioa

C/ Uralde, 8 bajo  
482015 IURRETA  
Tel.: 94 681 20 86  
cons.alda.sl@gmail.com

**ASIMAIR**  
COMPRESORES

SALMENTA ETA ASISTENTZIA  
TEKNIKO ZERBITZUA

Ertzilla ind., pab. 7, 8 eta 16.  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 202 415  
asimair@asimair.com

**Garage SAN MIGUEL**

TallerXXI

ESPEZIALISTAK DIESEL  
ETA GASOLINA MOTOREAK  
KONPONTZEN

Dantzari auzunea, 8  
IURRETA  
Tel.: 946 811 479  
garagesanmiguel@gmail.com  
www.garajesanmiguel.es

# Hesian, Nebrashka eta Ibarrako Langostinoak jaietako kartelburu

San Migel jaiak kontzertu eta musika aukera zabala ekarriko dute. Besteak beste, Luhartz eta Oxabi taldeek erromeria doinuekin jantziko dute Aita San Miguel plaza

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

San Migel jaiak musika eskaintza zabalagaz datoz Iurretara. Urteetako bideari eutsiz, askotariko doinuekin gozatzeko jaigune bihurtuko dira Aita San Migel plaza eta Askondo.

Aurten, Hesian talde nafarra etorriko da Iurretara. Urriaren 5erako antolatu duten kontzertuan kartelburu izango da iaz zazpigarren diskoa kaleratu zuen taldea. Egun horretan, Oxabi taldea ere igoko da oholtzara. Goizaldera

arteko ondorengo orduak Dj Bulek girotuko ditu, Aita San Migel plazan. Aldi berean, Askondon, Los Otros taldeak 70eko eta 80ko hamarkadetako musika ekarriko du gogora. Bezperan, urriaren 4an, Nebrashka, Dube eta Ibarrako Langostinuen taldeek kontzertua eskainiko dute.

San Migel egunak, bestalde, erromeria doinuekin ekarriko ditu Iurretara. Irailaren 28an, Luhartz taldeak girotuko du Aita San Migel plaza. Ondoren, Dj Ainhoa jardun-

go da musika ipintzen. Askondon, Rocio Durcali gorazarre egingo diote. San Migel egunean, Errebal taldeak alaituko du plazako giroa.

## Bertso jaialdia

Bertsozaleek urteroko zita izaten dute Iurretan, eta aurten ere egongo da saioa. Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Txaber Altube ariuko dira bertsoan, frontoian. Maite Berriozabal izango dute gai jartzaile.



Hesian talde nafarrak kontzertua eskainiko du Aita San Migel plazan, urriaren 5ean.

# Nekazari eta artisauen azoka Olaburun izango da aurten

Nekazaritza eta Artisautza Azokaren 21. aldia izango da eta, urtero legez, Errosario Egunean egingo dute, urriaren 6an



Iazko azokako argazkia. **INAKI IZAGIRRE.**

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Aurten, Nekazaritza eta Artisautza Azokak 21. aldia egingo du. Antolatzaileek Andaparapetik Olaburura lekualdatzea erabaki dute, plazako jai guneagaz lotura indartzeko eta Andaparapeko aparkalekuak erabilgarri mantentzeko. Olaburu kalea "atseginagoa" izan daitekeela uste dute antolatzaileek. "Oinezkoentzat berri-tutako gunea dugu orain, eta azokak lotura handiagoa izango du plazagaz", adierazi dute.

Begiratoki berria eta karrajua baserriko produktuen erakustokiak eta umeentzako jolasak egokitzeko erabiliko dituzte. Arti-

sauek, bestalde, udaletxearen alboan izango dute lekua. Frontoian alboan txosna bat ipiniko dute, eta, eguerdian, txahal okelaren pintxoak banatuko dituzte. Azken

**Azokak baserriko produktuen hogei ekoizle eta zortzi artisau batuko ditu, 10:00etatik 14:00etara bitartean**

urteetan lez, azokak baserriko produktuen hogei ekoizle eta zortzi artisau batuko ditu, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

**Zuremenua**  
Ondo pasa jaixetan!  
Katering zerbitzuaK  
688 614 162 • info@zuremenua.com

**ESTANCO IURRETA**  
Zubiaurre, 3 - 48215 Iurreta  
Tel.: 944668237

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldako eta komuneko altzariak

Bixente Kapanaga, 3 - IURRETA izarbek@izarbek.com  
Tel.: 946 812 280 - Faxa: 946 216 336

OKINDEGI

**ALBERDI**

Mallabierna, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA

Ondo pasa San Migel jaietan!

Ingurukoak errespetatuz gozatu!

aita san migel jai batzordea

BAÑOS IURRETA

Erakusketa eta komuneko osagarrien salmenta

**ITURGINTZA BEROGAILUA GASA**

Tel-Faxa: 946 202 433  
NICO: 629 233 318  
Email: b.iurreta@yahoo.es

Maspe kalea, 4 - 48215 Iurreta

**IURRETA**

**HARATEGIA FRUTA - DENDA**

Bixente Kapanaga, 4 - IURRETA

**FURESA**  
FUNDICION NODULAR

**IURRETA • EKAITZ HERRERA**

Jon Gaminde gaiteroak 40 urte daramatza ia hutsik egin barik lurretako sanmigeletara etortzen. Lagun asko egin ditu eta lurretako plaza osasuntsu ikusten duela dio.

# “Iurreta paradisia da folkloreakaren ikuspegitik”

Jon Gaminde gaiteroa Bilboko Errekalde auzokoa da. Urteek aurrera egin ahala, sanmigeletako ezinbesteko figura bilakatu da

**40 urtean ia hutsik egin barik etorri zara lurretako jaiak girotzera. Atxikimendu handia al diozu lurretari?**

Lehenengoz, fanfarrea bategaz txirula jotzera etorri nintzen lurretara. Ordutik hona, 40 urte pasatu dira jadanik. 15 urte nituen, eta, harrezkero, urtero etorri izan naiz, urte bitan izan ezik. 1986tik aurrera, gaita jotzera etorri izan naiz, eta, iaz, atabala ere jo nuen dantzarien saioan. Musikaria naiz eta, nire ustez, Iurreta paradisia da folkloreakaren ikuspegitik.

**'Paradisu' legez deskribatu duzu lurreta. Zer motatako paradisia?**

Bizkaiko gaiteroen taldekoa naiz. Kontuan hartu Bilbokoak garena, eskola frankistak ezagutu dituen azken belaunaldikoak garena, eta gaztaroan hemen ezagutu genuena oso berezia izan zen: guretzat ez ziren ohikoak trikitilariak, albokariak, giro euskalduna, dantzak..., eta, alde horretatik, Iurreta paradisuaren modukoa izan da beti.

**Hainbeste urtean lurretara etorrita, etxekotzat hartu zaituztela esan daiteke.**

Urte hauetan guztietan lagun asko egin ditut lurretan. Adibidez, Jon Irazabalen lagun handia naiz. Bera Gerediaga elkarteko liberatua izan denez eta ni Bizkaiko Dantzarien Elkartean nagoenez, gure ibilbideek sarri egin dute



**Jon Gaminde Terraza**  
Bizkaiko gaiteroen taldeko kidea  
Bilbo | 1964

“**Iurretan lehenengoz jo nuenetik 40 urte pasatu direla ospatzeko, sasoi bateko diana berreskuratuko dugu**”

bat. Abasolotarrekin, Tiliñogaz, Mari Tere Zugaza-artazagaz eta herriko hainbat gaztegaz ere hartu-eman handia izan dut.

**Iurretako plaza ezin da dantzaririk barik ulertu. Zelan ikusi duzu herriko dantza taldearen bilakaera?**

Ez ditut denen izenak gogoratzen, baina Iurretako plazan dantzan ikusi nuen lehenengo ezpatadantzari taldea Iketzak, Txapuk, Txiflisek eta beste hainbatek osatuta

zegoen. Gerora, Abarkasen taldea etorri zen. Jon Badiolarena ere bai, eta gaur egungo neska taldea ere ezagutu dut. Dantza taldean izandako lau errelebo aldaketa ikusi ditut. Iurretako plazak eutsi egin dio dantzari, eta gizartearen aldaketetara egokitzen jakin du.

**40 urte hauetan makina bat anekdota biziko zenituen lurretan. Ba al dago kontatu daitekeen pasar bat?** Lehenago, goizeko seietan etor-

tzen ginen diana jotzera. Jende asko iratzartzen genuen eta beste asko etxera bidaltzen genuen. Gaupasero asko biltzen zen eta txapligu pilo bat botatzen zituzten; dianak zaratatsuak izaten ziren. Desanexioaren urteak ziren eta sumatzen zen. Iurretan lehenengoz jo nuenetik 40 urte pasatu direla ospatzeko, sasoi bateko diana berreskuratuko dugu aurtan.

**URALDE**  
KLINIKA DENTAL  
Begoña Zubimendi Goxencia  
Uralde 1, Bajo  
Esquina Bixente Kapanaga  
48215, Iurreta, Bizkaia  
667 097 575 · 946 550 055  
info@klinikauralde.com  
www.klinikauralde.com

**ARRIBIDE**  
.. GASOLINDEGIA ..  
Arriaundi Industrialdea P1  
48215 IURRETA Bizkaia  
Tel. 946 818 381  
estacionservicio@arribide.com  
www.arribide.com  
*Ondo pasa San Migeletan!*

**Azkonizaga**  
Edari banaketa  
GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK  
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAK  
Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 38  
azkonizaga@azkonizaga.com

**BATZOKIA**  
Iurretako  
Eguneko menua  
Enkargatutako afariak  
Asteburuetako afariak  
Bixente Kapanaga, 21  
Tel.: 94 620 27 64

**BAR LA CUADRA**  
Bixente Kapanaga, 10 IURRETA

**La Godaquilla**  
PINTXOAK  
eta aperitiboak  
Dantzari auzunea, 6 - IURRETA  
Tel.: 944 669 357



## IURRETA *Tellitu-n*

*3 logelatako 6 etxebizitza*

*2 logelatako 11 etxebizitza*

*Garajea eta trastelekua barne*

**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)



# Ostalaritza gida

anboto

 Durango



**PLATERUENA** Kafe antzokia  
Landako etorbidea, 4 - DURANGO  
**Tel.: 946 030 300**  
[www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Egunero zabalik. Menu bereziak,  
egunerokoak, taldeentzakoak eta  
ospakizunak.

 Durango



**KOBIKA JATETXEA**  
San Ignazio, 8 - DURANGO  
**Tel.: 946 810 003**  
Egile sukaldaritza eta tradizionala.  
Menu bereziak eta karta.

 Iurreta



**GAUARGI**  
Dantzari, 4 behe - IURRETA  
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta  
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.  
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak  
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta  
jaiegunetan rabak.

 Durango



**OLAJAUREGI JATETXEA**  
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO  
**Tel.: 946 200 864**  
[www.olajauregi-jatetxea.com](http://www.olajauregi-jatetxea.com)  
Eguneko menuak, bereziak,  
taldeentzakoak eta ospakizunak.  
Egunero zabalik.

 Durango



**GORA GORA**  
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO  
**Tel.: 946 811 384**  
Plater konbinatuak, hanburgesak,  
ogitartekoak eta kazolatxoak.

 Abadiño




**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**  
Eguneko menuak eta asteburuetakoko  
menu bereziak. Goizetik pintxoak.  
Giro oso ona.

 Durango



**MIKELDI TABERNA**  
Kalebarria, 7 - DURANGO  
**Tel.: 944 073 988**  
Alde zaharrea kokatuta.  
Pintxo gozoak eta giro alaia.



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**





## Txistu doinuak nagusi Zornotzako kaleetan

Txistu doinuek beteko dituzte, zapatuan, Zornotzako kaleak. XIX. aldi honetan, Euskal Herriko zazpi txistulari talde batuko dira: Bermeoko Kakinkabara, Durangoko Jaizale, Eibarko Usartza, Iruñeko Larriberri, Lekeitioko Itxaropena, Urduñako Getxa-

goi eta Zornotzako Udazken. Txistulariek 17:00etan ekingo diote lanari, eta talde bakoitza herriko ingurune batetik ibiliko da. Guztiak elkartuta, 18:00etan, elkarrekin kalejiran ibiliko dira herrigunetik, eta tokian-tokian kontzertu txikiak eskainiko di-

tuzte. Gainera, tronpetak, tuba, saxoa eta akordeoia batuko zaizkie txistu doinuei. Ogenbarrena auzoko jaiak ere badirenez, txistulariek kontzertua eskainiko dute bertan, 19:00etan.



## Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoia, Zornotzan

**SAGARDOA** | Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoia finalaurreko bat Zornotzan jokatuko da. Irailaren 21ean izango da kanporaketa, zapatuan, Edur

Mendi elkartean. 20:00etan ipini dute hitzordua. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak bertan parte hartzera deitu ditu herriarrak.

Antolatzaileek azaldu dutenaren arabera, hainbat sagardo dastatu eta puntuatuko dituzte afari baten bueltan, eta, gaineratu dutenez, ez da zertan aditua izan. "Nahikoa da sagardoa gustatzea", diotenez. Sarrerak Uxarte sagardotegian eta Tomasa tabernan erosi daitezke. Bestela, [www.sagardoa.eus](http://www.sagardoa.eus) atarian ere eskuratu daiteke txartela. Sagardozaleek aukera ezin hobea dute biharkoa.

### Irailaren 20an

**BERRIZ musika**  
**Kantu kolore**, 18:00etan, Olakueta plazan. Kulturaz Blai egitarauaren barruan antolatu dute.

**DURANGO**  
**Goienkaleko jaiak**  
**Ama birjinari aureskua eta txupinazoa.**  
**Kalejira Sugarri fanfarreagaz**, 20:00etan, Goienkalen.

**ELORRIO dantza**  
**'Janeten titia' (Ertza dantza taldea)**, 20:30ean, Arriola antzokian.

**GARAI musika**  
**Kantu potea**, 19:30ean, Herriko tabernaren aurrean.

**ZALDIBAR bertsoa**  
**Bertso afaria Sebastian Lizaso eta Maddalen Arzallusegaz**, 21:00etan, Goierriko auzo etxean. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta.

### Irailaren 21ean

**DURANGO bazkaria**  
**Anaitasun bazkaria bazkide eta familientzat**, San Lorenzoko landetan. Ondoren, tute, igel eta calva txapelketak egingo dituzte. Gaztela Leongo elkartearen kultur astearen barruan.

**DURANGO**  
**Goienkaleko jaiak**  
**Sardina jana**, 13:00etan, Andra Marian.  
**Goienkaleko paella txapelketa**, 13:00etan (epaileak 15:00etan pasatuko dira baloratzeko).  
**Trikitixa**, 13:00etan.  
**Mus Txapelketa**, 17:00etan, Maite tabernan. **Igel txapelketa**, 17:00etan, Rugby tabernan. **Batukada K-TUM-K taldeagaz**, 19:30ean.  
**Erromeria: Eneirband**, 22:00etan, Andra Marian.

## MICEk kontzertua eskainiko du Plateruenean, domekan

**ANTZERKIA** | Miren Narbaizak orain urte bi ekin zion bakarkako ibilbideari, MICE proiektuagaz. Napoka Hiria taldean hainbat urte egin ondoren hasi zuen bide berria, eta zortzi abesti batzen dituen diskoa kaleratu zuen.

Domekan, irailaren 22an, Plateruena kafe antzokian entzuteko aukera izango

da. Bere emanaldiak Aperitif Session egitaraua itxiko du. MICE proiektuak askotariko giroak batzen ditu: erritmo pausatua, ilunak, rockeroak eta atmosfera goxokoak. Miren Narbaizak Plateruena kafe Antzokiko terrazan emango du kontzertua, 13:00etan hasita.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [kultura@anboto.org](mailto:kultura@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

**ELORRIO**  
**Mugikortasun Astea**  
**Mugikortasun ibilgailuen banaketa**, Buzkantz kalean: 11:00-14:00.  
**Triziklo pista**, adin guztietarako, eta **segway pista**, 11 urtetik gorakoentzat: 11:00-14:00.  
**Dordoka elektrikoak**, zazpi urtera arte, eta **looping bikes**, 11 urtetik gorakoentzat: 17:00-20:00.

### Irailaren 22an

**DURANGO**  
**Goienkaleko jaiak**  
**Patata tortilla txapelketa**, 13:30ean, (epaileak 15:00etan pasatuko dira baloratzeko).  
**Kalejira Durangoko Udal Bandagaz**, 13:30ean.  
**Mexikanadak**, 14:00etan.  
**Umeentzako jolasak (Barbaro)**, 17:30ean.  
**Zumba Solidarioa (Angelman)**, 17:30ean.  
**Txokolatada**, 19:00etan, Anboto tabernan.  
**Kalejira trikitalariekin.**

**DURANGO antzerkia**  
**'Xokolat' (Paraiso antzerki taldea)**, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

**ELORRIO kirola**  
**Bizikleta herri inguruan**, 10:00etatik 14:00etara.  
**Kirol jarduerak: Nordik walking**, 11:00etan + **zumba**, 12:00etan + **jump**, 13:15ean.  
**Zurezko jostailuak**, 17:00etatik 20:00etara.

### Irailaren 22ra arte

**DURANGO erakusketa**  
**Enrike Ojenbarrenaren artelanen erakusketa**, Ezkurdi aretoan.

### Irailaren 24an

**DURANGO**  
**Goienkaleko jaiak**  
**Jubilatuaren bazkaria**, 13:30etan, Anboto tabernan.  
**Hildakoen omenezko meza**, 19:00etan, Santa Ana elizan.  
**Pintxo Txori Festa**, 19:30ean.  
**Jaien amaiera**, 21:30ean.

### Irailaren 26ra arte

**ELORRIO erakuskera**  
**Ertibil 2019**. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako erakusketa ibiltariaren 37. edizioan 83 artistek parte hartu dute espezialitate guztietako 113 lanekin. Horien artetik, 18 artistaren 18 obra aukeratu dituzte erakusketa osatzeko. Iturri kultur etxean daude ikusgai.

**DURANGO musika**  
**Dj MiniAnn**, 22:00etan. Txoria Nuen Maite tabernan. Jan and Jai egitaruaren barruan.



### Xokolat

Paraiso  
Antzerki Taldea (Gasteiz)  
3 urtetik aurrera  
Irailak 22, 18:00etan

### Julietas, Romeo Circo

Markelaine Antzerki Taldea  
Irailak 28, 20:00etan

San Agustin  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · [sanagustin@durango.eus](mailto:sanagustin@durango.eus)

### Funtsak

Nuria Pérez Danza  
Urriak 5, 20:00etan



Ad Astra, Durangoko Zugaza zineman

## Zinea

### :: Durango - ZUGAZA

· **Ad Astra**  
barikua 20: 19:30/22:00  
zapateria 21: 17:00/19:30/22:30  
domeka 22: 17:30/19:30  
astelehena 23: 18:30/21:00  
martitzena 24: 20:00  
eguztzena 25: 20:00

· **Downton Abbey**  
barikua 20: 19:30/22:00  
zapateria 21: 17:00/19:30/22:30  
domeka 22: 17:30/20:00  
astelehena 23: 18:30/21:00  
martitzena 24: 20:00  
eguztzena 25: 20:00

· **A dos metros de tí**  
barikua 20: 19:30/22:00  
zapateria 21: 19:30/22:30  
domeka 22: 20:00  
astelehena 23: 18:30/21:00  
martitzena 24: 20:00  
eguztzena 25: 20:00

· **Misión Katmandu**  
zapateria 21: 17:00  
domeka 22: 17:00

### :: Elorrio - ARRIOLA

· **Tu fotografía**  
zapateria 21: 22:00  
domeka 22: 20:00  
astelehena 23: 20:00

· **El rey León**  
domeka 22: 17:00

### :: Zornotza - ARETOA

· **Quien a hierro mata**  
barikua 20: 20:15  
zapateria 21: 19:30/22:00  
domeka 22: 20:00  
astelehena 23: 20:15

· **Angry Birds 2**  
zapateria 21: 17:00  
domeka 22: 17:00

### Irailaren 27an

**ELORRIO antzerkia**  
**'Y todo por amor' (Cia. 7 Grados)**, 20:30ean, Arriola antzokian.

**DURANGALDEA ibilaldia**  
**Durangaldeko bideetan zehar hainbat ibilbide**. Urriaren 1ean Adinekoen Nazioarteko eguna dela-eta Durangaldeko Nagusien Elkartek antolatutako ekimena. Izena emateko: 94 465 74 51 / 94 620 05 46 telefonoetara deituz.

### Urri hasiera arte

**IURRETA erakusketa**  
**'Iurretak udalerriz izatea eskuratu ondorengo lehenengo sanmigelak'**, Oreka tabernan. Erakusketa 10 argazkik osatzen dute.



**Stella Manaut**  
Idazlea eta aktorea

## “Durangora heltzea berriro arnasa hartzea bezalakoa izan zen aitarentzat”

Stella Manaut, Joserren alaba, 'Kartzela eta erbestea Durangon' erakusketaren inauguraziora etorri da.

**ARTEA • ARITZ MALDONADO**  
José Manaut Viglietti aita bezala, Stella Manaut alaba ere artista da. Kasu honetan, baina, alabak literaturara eta antzezpenera jo du. Besteak beste, 'Enamorada de un cura comunista' eta 'Mujeres infieles en la era franquista' eleberriak publikatu ditu. 2003an, Manaut Margolariaren Lagunen Elkarte sortu zuen, aitaren obra ezagutzera emateko. Aitak Durangogaz zuen harremanaz jakitun, hunkituta dagoela adierazi du Stella Manautek, eta aitaren obra herrian zein herritik kanpo ezagutzera emateko gogoz. Esker oneko ere agertu da.

**Zer ikusi daiteke Durangoko museoan?**

Aita urtebetean egon zen Durangon erbestetatuta. Porlierko (Ma-

dri) eta Carabancheleko (Madril) kartzeletan egon eta gero heldu zen Durangora. Pena handiagaz heldu zen hona. Urteak giltzapean, familiarengandik urrun, baliabiderik barik... Han asko margotu zuen.

Kartzela frankistetako dokumentu grafikorik garrantzitsuena dugu, 300 marrazki baino gehiagoz. Zati bat Madrilgo Carlos III.a unibertsitatean dago; bestea, Valentziako unibertsitatean. Horren zati bat ikusi daiteke erakusketan. Baita Durangoko egonaldiak ere. Jendeak oso ondo tratatu zuen hemen, eta horri eskerrak konfiantza berreskuratu zuen. Aita gizon jantzia zen, oso atsegina, eta horri eskerrak berehala egin ahal izan zituen lagunak. Jendeak be-

rak eginiko margo lanak erosten zizkion, eta hori arindua zen familiarentzat. Lan horiek jada existitzen ez den belaunaldi batenak ziren, baina euren seme-alabek,

“**Kartzela frankistetako dokumentu grafikorik garrantzitsuena daukagu, 300 marrazkigaz**”

ilobek, eta bilobek oinordetzan jasotuzte. Badakit horiek biltzeko saiakera egin dela eta horietako batzuk erakutsiko direla. Koa-



Gerediaga elkarte.



Gerediaga Elkarte



droez gainera, Carlos III.a unibertsitatean dauden dokumentuak ere egongo dira ikusgai. Baita kartzelako egunerokoa ere.

**Zure aita zena urtebetean egon zen Durangon. Nolako eragina izan zuen sasoi horrek berarengan? Eta bere obran?**

Eragina izan zuen, batez ere, bat-batean libre egon zelako berriro. Bere etxetik urrun, baina askatasuna berreskuratuta. Tokian bertan pintatzen zuen beti. Argazki gainean ere margotu zezakeen, baina lekuan bertan pintatzea zuen gogokoen. Mihisea, euskarria eta pinturak hartu, eta harrigarriak iruditzen zitzaizkion lekuetara joaten zen, hauek margotzeko asmoz. Barrualdean ere margotzen zuen, eta Durangon erretratuak ere margotzen zituen. Berarentzat sekulako arindua izan zen kartzelan egon ondoren askatasuna berreskuratzea, eta, horrez gainera, lagunak egin zituen; giro atsegin batean egon zen eta diru apur bat irabazi ahal izan zuen familiari bidaltzeko. Durangora heltzea berriro arnasa hartzea bezalakoa izan zen aitarentzat.

**Bizipoza berreskuratu zuela esan daiteke, beraz.**

Bai, noski. Eta itzelean berreskuratu zuen hemen. Imajinatu,

edukitzea. Durangon herritar jator asko ezagutu zituen, beste istorio bat hasi zen berarentzat. Beste modu batera margotzen hasi ahal izan zen. Espetxean erretratuak margotzen zituen gehienbat, eta egoerak ere eramanen zituen koadroetara. Horri eskerrak, dokumentazio lan zoragarri bat dago eginda. Adibidez, leku txiki-txiki batean nola egiten zuten lo ikusi daiteke koadroen bitartez. Garai haretan preso politikoak, hiltzaileak, lapurrak... elkarrekin nahasita nola jolasten ziren ere ikusten da. Konfinatuta nola bizi ziren ere bai, ezer barik ahora eramateko. Hori dena ere erakusten dute bere lanek. Egoera hori bizi eta gero, Durangora heltzea berpiztearen moduko zerbait izan zen.

**Familiarentzat, edo fundazioarentzat, zer suposatzen du bera lana Durangon erakusteak?**

Justua dela iruditzen zait. Aitak lorratza utzi zuen hemen, jende askorentzat garrantzitsua izan zen eta. Eta guretzat ere hunkigarria da aitaren orduko marrazkiak ikustea, eta garaian ezagutu zuen jendeagaz elkartzeara. Ez da erraza, baina polita da aitaren jendeagaz eta obragaz berriro elkartzeara. Durangoko kaleak, pasealekuak, zelaia ageri dira margo lanetan, eta aitaren ispiritua ere bai, aldi berean.

**Aukera ona Durangogaz zuen hartumana ezagutzera emateko.**

Aukera itzela da Manaut ezagutzera emateko, eta baita aldearantz ere, Durango Espainian zehar ezagutzera emateko. Esan bezala, garai gozoa izan zen aitarentzat, eta hori ezagutzera eman behar da. Aita ez zen katolikoa, ez zen praktikantea behintzat, baina parrokoaren lagun-min egin zen. Durangoko jende askok zuen estimuan, eta horregatik laguntzen zioten. Eta aitak ere marka utzi zuen hemen, jakina.

**Guretzat ere hunkigarria da aitaren marrazkiak ikustea, eta garaian ezagutu zuen jendeagaz elkartzeara**

bi-hiru urte espetxean egotea, edozein momentutan tiro bat jasotzeko arriskuagaz, eta egun batetik bestera Durangoren moduko leku batera joateko aukera



Ane Abalanzabalegi Astarloa kultur gintzako presidentea eta Garazi Arrizabalaga museoko zuzendaria.

## José Manaut Durango "aberri txikitzat" zuen margolari valentziarraren erakusketa ikusgai dago museoan

Manaut Durangon erbesteratuta egon zen, 1944ko abuztutik 1945eko irailera arte

**ARTEA • A.M.**

Hasierak ez dira inoiz ere errazak izaten, eta José Manaut Viglietti margolariarentzat ere ez zen horrela izan 1944an Durangora erbesteratuta heldu zenean. Kartzelatik irten berritan, familiarengandik urrun egotera behartuta eta baliabiderik barik heldu zen Durangaldera. Denboragaz, baina, lotura estua egin zuen herriagaz, inguruekin eta durangarrek. Horrela adierazi zuen bertan igarotako urtebetean idatzitako egunerokoa. Idatzi hori ikusgai egongo da urriaren 28ra arte Durangoko Arte eta Historia

**José Manaut 1971ko urrian hil zen, gaixotasun baten ondorioz**

museoan, *Kartzela eta erbestea Durangon* erakusketaren baitan.

Llirian (Valentzia, Herrialde Katalanak) jaio zen José Manaut, 1898an. Kultur giroan hazi zen, eta Valentziako Arte Ederren eskolan ikasi zuen gero. 18 urteagaz lehenengo erakusketa egin zuen, eta beka bati eskerrak Frantzia, Belgika eta Herbehereetan ikasi ahal izan zuen. 36ko gerraren

ondoren, errepublikazale izatearren etxean ezkutatu behar izan zuen, Madrilera ihes egitea lortu zuen arte. 1943an, baina, espetxeratu egin zuten. Hamabi urte eta egun bateko espetxealdira zigortu zuten, eta Carabancheleko eta Porlierko kartzeletan egon zen.


Gero, zigorra kommutatu zioten, eta 1945eko irailean Durangora erbesteratu zuten. Durangon, margotzeko grina berreskuratu zuen berriro. José Manaut 1971ko urrian hil zen, gaixotasun baten ondorioz.

**Memoria berreskuratzen**

Manauten kasua salbuespena da Espainiako gerran eta gerraosteko frankismo garaian. Artista asko espetxeratu, erbesteratu edo hil egin zituzten, eta euren lana ez da ezagun egin. José Manauten kasuan, oster, kartzelaldiko marrazkiak publikatu, eta erakusketak egin dira, eta horri eskerrak, isilarazi zituzten beste artista batzuen lana argitaratu ematea ahalbidetu da. Stella Manaut alabak sorturiko Manaut Margolariaren Lagunak elkarteak eta Madrilgo Carlos III.a unibertsitatea horretarako lanean ari dira.

**Durangaldean Manauten 70 bat lan daudela uste da**

"José Manaut etxerik etxe joaten zen bere burua marrazkiak egitera eskaintzen", azaldu du Garazi Arrizabalaga Durangoko Arte eta Historia museoko zuzendaria, artistaren hurbiltasuna azpimarratu guran. 1970eko urrian, lan horietako asko Ezkurdiko kultur aretoetan eginiko erakusketan erakutsi zituzten, 70 inguru. Manaut erakusketara joatekoa zen arren, ordurako gaixorik zegoen, eta gutun bat bidali zuen esker ona agertzeko. Durangon igarotako egunak "zailak" izan zirela argitu arren, Durangori zion estimua argi utzi zuen gutunean: "Niretzat, Durango bigarren aberri txiki bat bihurtu da". Erbestean idatzitako egunerokoaz gainera, Madrilgo Carlos III.ak utzitako 29 marrazki, 13 oleo (Durangaldeko museoaren propietatea den *Pinondo* eta durangar batzuren bilduma pribatueta 12) eta artista valentziarraren paleta bat ikusi daitezke erakusketan.



Gerediaga elkarte.

# Txokolate fabrika batean sortzen den kimikari buruzko obra aurkeztuko du Paraisok 'Xokolat'-en

Gasteizko Paraiso antzerki taldeak sormen handiko obra eskainiko du irailaren 22an, San Agustinen, 18:00etan

## ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

San Agustin kulturguneak Gasteizko Paraiso antzerki taldearen *Xokolat* ikuskizunagaz ekingo dio denboraldi berriari. Domekan izango da emanaldia, irailak 22, 18:00etan. Erloju suitzar batek bezala funtzionatzen duen txokolate fabrika batean kokatzen da istorioa. Bertan gurutzatuko da Rosa A. Garcia eta Maitane Goñi aktoreen bidea: bata errutina maite du, besteak bere begirada kurioso eta dibertigarria kutsatu gura du. Euren elkarbizitzak fabrikako monotonía amaituko du eta hainbat pasarte sortuko dira. Abentura ezohiko jarduera batez hasiko da; hain zuzen ere, egiten duten txokolatea probatzeagaz batera. Txokolatea usaintzeak, dastatzeak, ikertzeak eta beragaz jolasteak bidaia batean zehar daramatza protagonistak.

Umeentzako antzerki baino gehiago, Arantza Arrazola San Agustineko koordinatzaileak gura go ditu horrelako ekoizpenak "familia osoarentzako" moduan izen-

datu. Izan ere, horrelako ekoizpenek hainbat geruza izaten dituzte, hainbat adin tarteko ikusleentzat.

## 24 ekitaldi abendura arte

Euskal Herriko ekoizpenek pisu

handia izango dute ikasturte hasierako programazio honetan. "Bertako ekoizpenek sekulako maila dute. Iaz Espainiako Arte Eszenikoen saria jasotako Marie de Jongh eta aurten MAX saria jasotako Kukai

konpainiek eskainiko dituzte ikuskizunak San Agustinen", adierazi dute antolatzaileek. Durangaldeko Gorakada eta Markeliñe konpainien lanak ere egongo dira ikusgai datozen hileetan.



Rosa A. Garcia eta Maitane Goñi.

# Xabier Amuriza Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria irabazteko hautagaien artean

Txaro Arteaga, Felix Ibarrodo eta Jon Kortazar dira saria irabazteko beste hautagaiak



Xabier Amuriza.

## LITERATURA • JOSEBA DERTEANO

Eusko Ikaskuntzak hainbat arrazoi eman ditu Xabier Amuriza (Etxano, Zornotza, 1941) bertsolari, idazle eta itzultzailea aurtengo Manuel Lekuona sarian hautagaien artean sartzeko. 80ko hamarkada hasieran bertsoak "modernizatu" zituela argudiatu dute, besteak beste. Hurrengo urteetan egindako lan emankorra ere azpimarratu dute.

## Bozketa

Eusko Ikaskuntzak internet bidezko bozketa zabaldu zuen, irailaren 18ra arte. Erabakiaren %10 balio dute; Eusko Ikaskuntzako kideenak %30eko balioa dute, eta epaimahai instituzionalarenak %60. Erabakia udazkenean jakinaraziko dute.

## Gai librea

Fernan Ruiz Larringan Euskaltzalea



## Zuloak

Gurdibide izandakotik irteten ginen etxetik eskolara joateko, eskaparateetako argiak ikusteko... Okinaren autoa izan zen ikusi genuen lehen motordun ibilgailua belarrez apainduriko bidetik igarotzen; bozina jo eta hara hurreratzen ginen amak emandako ogerlekoak eskuan. Gerora, ugaritzen hasi ziren autoak auzoan, eta bide apain hura zuloz betetzen. Ugaritzen hasi ziren eraikuntza obrak eta, bazterretan, hondakinak: adreilu zatiak, baldosa txatalak, harezko horma hondarrak... Palakada batzuk botata tapatzen zituzten auzokoek zuloak, autoei joan-etorria lautzeko, leuntzeko. Itxura aldatu zioten biderei eta, gutxira, baserri auzo hura zeharo aldatu zen.

Otxandioko munarriei egiaztatze bisita egiten gabiltzala, umetako pasartetxo hau kontatu dit gatazka gordina bizi duen herrialde batean brigadista dabilen bisita kideak. Danbor hotsa trumoiari deika ari zaio, eta hark erantzun. Lokaztu dira baso eta larreak zeharkatzen dituzten bidezidorrak. Urrinera, gorrien kaminoa; atertu du. Pagoenborrean aizkorakada bi, eta markatuta dago herrien arteko muga. Berriketari ekin diogu. Lurralde-arazoak dituen herrialde batean izan da, poza umeen aurpegietan baino ageri ez den horietakoan. Han, umeak eurak dira hondakinetatik ateratako adreilu zati koloretsuak, harrinxintzar jostariak, baldosa txatal distiratsuak, sakonuneak bete eta bizimodu malkartsua leuntzen dutenak. Bortxak eragindako zuloetan olgetan dabilzan umeen irribarreak eman dio kemena, berriro ere, hara bueltatzeko.

**BODEGUILLA**

**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85

**hitz** liburudenda

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

**ZORIONEKO FAMILIA**  
Iñaki Irasizabal (2019)

**OTSOKO ETA ETXERAKO BIDEA**  
Field & Bright (2019)

**OREKA AHULA (LP eta CD)**  
Mocker's (2019)

**LOPEZ IZOZKIAK**  
Durango

100 urte baino gehiago postasuna eskaintzen!

LOPEZ IZOZKIAK  
Artekalea Kalea, 12  
DURANGO

# “Oso pozik gaude, baina ez etapa garaipenarengatik bakarrik, baita zaleengana heltzea lortu dugulako ere”

Ruben Perez zaldibartarrak, Euskadi-Murias taldeko lehenengo zuzendariak, Espainiako Vueltaren balorazio positiboa egin du



**Ruben Perez Moreno**  
Euskadi-Murias taldeko  
lehenengo zuzendaria  
**Zaldibar | 1981**

rus bat izan zuela tripan. Etapa hasi aurretik, botaka aritu zen eta ia lasterketa osoa bakarrik egin zuen. Benetan egun gogorra izan zen berarentzat. Hurrengo egunean ere ahul zegoen. Birusik izan ez balu, etapa gehiagotan lehian egongo zela esango nuke.

**Alde positibo asko aipatu ditugu. Kendu beharreko arantzarik geratu zaizue?**

Oscar Rodriguezegaz hiru aukera izan genituen Vueltako lider ipintzeko. Helburu erreala eta egingarria zen. Hiru egunetan ihesaldietan sartzen ahalegindu arren, ez zen posible izan. Arantza moduan, horixe aipatuko nuke.

**Azkenaldian asko berba egin da Euskadi-Murias taldearen jarraipenaren inguruan. Vueltako emaitzek lagundu dezakete panorama argitzen?**

Denak laguntzen du. Enpresa batzuek mezuak bidali dituzte proiektu honetan egoteko zer egin behar den galdetzeko. Zenbait enpresak, beraz, proiektuarekiko interesa erakutsi dute. Hori garrantzitsua da. Gauzak bide onetik doaz eta laster dena konfirmatzeko moduan egongo dela uste dut. Dakidanagatik, taldeak aurrera jarraituko du.

**Vueltako lehenengo etapan, Euskadi-Muriasen kotxe batek istripua izan zuen. Kotxe hartan zindoazen?**

Ez, ni ez. Taldekako erlojupekorako ibilbidea errekonozitzeko azken itzulira denboraz justu heldu ginen. Publizitate karabana irtetetzear zegoen eta karabanaren ostean joatea ez zen hain segurua ziklistentzat, bideak ez zirelako hain zainduta egongo. Gure kotxe bietako bat txirrindularien aurretik bidaltzeko eskatu zigun antolakuntzak, arrisku posibleak ekiditeko. Ziklistak irten ziren eta gu karabanagaz apur bat kateatuta geratu ginen. Ondoren, beste kotxeari txirrindularien aurretik ipintzeko agindu nion. Txirrindulariak aurreratu eta babeste nahi horretan, behar baino abiadura handiagoan sartu zen bihurtunera. Taldekako erlojupekoek tentsio handia eragiten dute, eta urduri samar ibili ginen. Dena dela, istripuak kalte materialak baino ez zituen eragin eta horixe da garrantzitsuen.

Ruben Perez, astelehenean, Zaldibarren, Madrildik heldu berritan.

**TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO**  
Ruben Perez gustura dago taldeak erakutsi duen mailagaz. Iaz bezala, etapa garaipen bat eskuratu dute, Mikel Iturriagaz, eta hainbat bider geratu dira lehenengo hamarretan. Gainera, taldekako sailkapena zazpigarren amaitu dute, UCIProTour-eko hainbat talderen aurretik.

**Pozik zaudete egindako lanagaz?**

Espainiako Vueltan bigarren urtez jarraian etapa garaipen bat lortzea ia ezinezkoa da, eta lortu dugu. Oso pozik gaude, baina ez etapa garaipenarengatik bakarrik, baita zaleengana heltzea lortu dugulako ere. Lasterketan, kotxean gindozenean, zaleengan ilusioa piztu dugula sentitu dugu. Bertatik bertara bizi izan dugu hori. Berdin zion Espainiako zein aldetan geunden, "Aupa Murias" eta antzekoak entzun ditugu, eta askotan zorionak eman dizkigute egiten ari ginen lanagatik. Bizi daitekeen gauzarik politenetarikoa da. Ni horregaz

geratzen naiz. Ikusgarria da proiektuaren aldeko hainbeste mezu entzutea.

**Vueltako protagonista izatea bilatu duzue hasiera-hasieratik.**

Protagonista izateak bila genbiltzan horretara hurbildu gaitu; hau da, etapa garaipenera. Lehiakor aritzeaz gainera, etapa garaipenen borrokan ibili gara. Eguneko etapa norentzat zen aproposa aztertu, eta hari dena eskatzen genion. Besteei, ahal zen neurrian, indarra gordetzeko eskatzen genien. Hau da,

“**Iturriak etapa irabazi zuen egunean Bizkarrak birus bat izan zuen tripan. Ia etapa osoa bakarrik egin zuen**”

jakin dugu etapa bakoitzerako nor aukeratu eta nori konfiantza eman etapa buru-belarri lehiatzeko.

**Taldeko sailkapena ikusita, UCI ProTour-eko talde asko baino hobeto aritu zarete uste duzue?**

Bai. Vueltako protagonista nagusia Jumbo taldea izan da. Gero, Miguel Angel Lopez eta Tadej Pogacar txirrindulariak datoz, eta euren atzetik Euskadi-Murias kokatzen dut. Horixe da errealitatea. Protagonistak izan gara, eta, batez ere, bigarren astetik aurrera.

**Zuzendari batek beti izaten ditu etapa batzuk begiz jota, irabazteko proposenak direlakoan. Mikel Iturriaren etapa garaipeneko horien artean zegoen?**

Bere etxetik gertuko etapa zen eta ibilbidea ondo ikasita zeukan. Ihesaldian burua hotz mantendu, eta aukerarik onena baliatzen asmatu zuen. Ez dakit une hartako azken kilometroetan baino nerbioosoago inoiz egon naizen. Tentsio ikaragarriko etapa izan zen.

**Eta tentsio guztiaren ondoren, garaipena xanpainagaz ospatzeko tartea hartu zenuten.**

Ospatu genuen, bai, eta oso polita izan zen. Talde guztiaren lana eta ahalegina errekonozitzeko unea izan zen: txirrindularien lana eta, oro har, taldeko langile eta la-

“**Enpresek interesa erakutsi dute. Gauzak bide onetik doaz eta nik dakidanagatik taldeak aurrera jarraituko du**”

guntzaile guztiena.

**Mikel Bizkarra ere saiatu da protagonista izaten. Zazpigarren amaitu zuen la Cubillako etapa.**

Mikel oso ondo aritu da. Esan beharra dago Iturriak etapa garaipena lortu zuen egunean, Bizkarrak bi-

# June Arbeo Leongo Errendimendu Handiko Zentroan ari da entrenatzen

Beka bati esker joan da hara eta aste honetan hasi ditu entrenamendu saioak



Krosara eta oztopo probetara zuzenduko ditu entrenamenduak.

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

June Arbeok (Durango, 1999) erronka berri eta ilusioz beterikoa hasi du Leonen. Espainiako atletismo federazioko beka bati eskerrak, hango errendimendu handiko zentroan entrenatuko da urtebetean. Ez da nolanhiko aukera, estatu osoan tankera horretako lau zentro baino ez daude eta.

Bere ibilbidean, lehenengoz izango du horrelako zentro batean aritzeko aukera. Entrenamendu saio exigenteak IBEFeko unibertsitate ikasketekin bateratu beharko ditu.

Joan zen astean bisitatu zuen, lehenengoz, Leongo zentroa. "Azpiegitura itzelak dira. Deneriko entrenamendu saioak hartzeko prestatuta dago", azaldu du. Entrenamendu saioak aste honetan hasi

ditu eta ez dira nolanhikoak izango. Normalean, egunero entrenatuko da, astelehenetik domekara. Aste batzuetan, atsedenerako egun bat izango du. Arbeo ohituta dago asteko egun askotan entrenatzera, baina exigentzia maila beste bat da orain. "Igartzan da aldaketa. Apurka-apurka bizimodu berrira ohitzen nabil eta, oraingoan, pozik eta ilusioz nago", adierazi du.

**"Igartzan da aldaketa. Apurka-apurka bizimodu berrira ohitzen nabil. Pozik eta ilusioz nago"**

**Krosa eta oztopodun proba**  
Neguko egunak krosetan entrenamenduetara bideratuko ditu. Gero, atletismoan zentratuko da, bere espezialitate kutuna den 3.000 metroko oztopodun proban. Iaz, modalitate horretan, Euskadiko errekorra apurtu zuen lehenengo, eta Espainiako txapelkun geratu zen gero. Hori gutxi balitz, 19 urte-gaz munduko atletismo txapelketa parte hartu zuen, Finlandian, eta 33. tokian sailkatu zen. Orain, etorkizunera begira, 2021eko Europako txapelketa du begiz jota.

Oraingoan, urtea amaitu arte, Durangaldea Running taldeagaz jarraituko duela dio, eta, gero, Leon inguruko talderen batera batzea baloratuko du.

**Ezkurdi futbol klubak bazkaria antolatu du biharko, 25. urteurrena ospatzeko**

FUTBOL • J.D.

Ezkurdi futbol kluba ospakizunetan dabil aurtan, izan ere, 25 urte bete dira sortu zenetik. Urtean zehar hainbat ekimen egin dituzte; besteak beste, ekainean Arripausuetan antolatu zuten goiz osoko jaiak. Baina oraindik ez dituzte ospakizunak amaitu. Zapatu honetarako, bazkari herrikoia antolatu dute. Durango Landako Gunean izango da.

Bazkariaren aurretik, klubeko talde guztien aurtengo argazki ofizialak aterako dituzte, Ezkurdi plazan. Ondoren, bazkarian, Ezkurdi klubeko gaur egungo kideak zein iraganekoak batuko dira. Bazkalostean, DJ Gorka Perezek musika ipiniko du eta hainbat opariren zozketak egingo dituzte.

**'Emakumeak korrika' ekimeneko denboraldi berria martxan da eguaztenetik**

KORRIKA • J.D.

Durango Kirol Taldeak 'Emakumeak Korrika' izeneko ekimeneko denboraldi berria abiatu du aste honetan. Ekimen honen bitartez, korrika egitea gustatzen zaien emakumeen euren zaletasuna beste emakume batzuekin partekatzeko aukera eskaintzen diete antolatzaileek, korrika egitera taldean irtenda.

Aste honetako eguaztenean batu dira lehenengoz, eta hurrengo hileetan ere eguaztenean ipiniko dute hitzordua, 18:30ean, Durangoko atletismo pistan.

Doako ekimena da eta emakume guztiei dago zabalik. Gura dutenek honako helbide elektronikoa argitu ditzakete duda guztiak: [dkt@gmail.com](mailto:dkt@gmail.com).

**Umeen artean herri kirolak sustatzeko jardunaldi bat antolatu dute lurretako pilotalekuan, domeka arratsalderako**

HERRI KIROLAK • J.D.

Lurretako HEKI klubak herri kirolen gainera jardunaldia antolatu du domekarako, 17:00etarako. Lurretako pilotalekuan izango da. Benjaminetatik kadete mailara arteko gazteak batuko dira.

Lurretako umeez gainera, Zeberio ikastolako, Basauriko Artunduaga atletismo taldeko, Bakioko pilota eskolako eta Gernikako Allende Salazar elkarteak umek batuko dira, besteak beste, lurretako pilotalekuan.

**Besteak beste, Zeberio, Basauriko eta Bakioko gazteak batuko dira pilotalekuan**

Hainbat herri kirol probatan arituko dira, adinaka banatuta: zaku-eramatea, lokotx-batzea, giza proba eta ingude-altzatzea izango dira probetariko batzuk.

Asteko kirolaria



ASSER ALONSO ARMENDIA

Atxondo, 1983

**"Korrika egin ahal dudana bitartean, Sorginen Lasterketan parte hartuko dut"**

Aurtan hamabigarren Sorginen Lasterketa jokatu da eta hamabietan izan da Alonso

izan ziren. Garazi Sampedrok garaipena lortu zuen nesketan, eta Gartzan Elejabarrieta hirugarrena izan zen mutiletan. Asser Alonso atxondarrak zazpigarren egin zuen. Alonsok aipamen berezia merezi du, Sorginen Lasterketako edizio guztietan parte hartu eta denak amaitu baititu.

**Zer da zuretzat Sorginen lasterketa?**  
Herriko lasterketa bat, egutegian

markatuta daukadan proba. Gainera, azken bost urteetan postu onak egin ditut. Nire esperantza egunen batean podiuma zapaltzea da, beteranoetan beharbada. **Mimo handiz prestatzen duzun lasterketa da?**

Mimo handiz, bai. Niretzat txarre-na da proba uda ostean izaten dela, baina, hala ere, sasoirik onenean heltzen ahalegintzen naiz. Urte batzuetan hobeto heldu naiz, eta

beste batzuetan txarrago, baina neure onena ematen dut beti. Iaz, esaterako, sasoi puntu onean heldu nintzen, indartsu, baina lasterketan jausi egin nintzen. Aurtan bero itzela egin du eta Anbotoko igoeran asko igarri nuen. Hala ere, oso pozik nago herrian lortutako emaitzagaz.

**Helmuga semeagaz eta lehengusinarren semeagaz zeharkatu zenuen**  
Oso une polita izan zen. Semea be-

ti izaten dut zain helmugan, noiz helduko naizen ikusteko. Itzelean gustatzen zait beragaz helmuga zeharkatzea, eta bera helmugan dagoela jakiteak aurrera egiteko indarra ematen dit.

**Imajinatzen duzue urte askoan izango duzula asmoa Sorginen Lasterketan parte hartzeko, ezta?**

Korrika egin ahal dudana bitartean, Sorginen Lasterketan parte hartuko dut, nahiz eta azken heldu. Niretzat oso lasterketa berezia da, etxeko lasterketa.

Bestalde, tarte honetatik esker-erak eman gura dizkiot Juan Sampedrori. Juan nire irakaslea izan zen eta asko miresten dut. Egunen batean podiuma zapaltzen badut, berari eskainiko diot.

Joan zen zapatuan, Sorginen Lasterketaren hamabigarren edizioa jokatu zen Axpen. Bertan, eskualdeko korrikalariak protagonista

# Gasteizko Araskik hirugarrenez jarraian irabazi gura du Euskal Kopa Durangon izango den finalean

Gaur finalerdiak jokatuko dituzte eta emakumezko talde bi onenen arteko finala domeka eguerdian izango da

**SASKIBALOA** • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Landako Kiroldetgia euskal saskibaloien erdigune bihurtuko da gaurtik domekara, bertan jokatuko baita Euskal Kopako azken fasea. Estatuko ligarik indartsuenean dabilzan Gasteizko RPK Araski, Lointek-Gernika eta IDK-Gipuzkoa taldeak, eta maila bat beherago dabilen Ibaizabal izango dira lau protagonistak.

Araskik hirugarrenez jarraian irabazi dezake Euskal Kopa. "Ilusio handia egiten digu berriro kopa altxatzeko aukera izateak, eta horretan ahaleginduko gara", adierazi zuen Iratxe Rodriguez klubeko presidentek aurkezpenen. Lointek-Gernikak eta IDK Gipuzkoak ere badakite zer den Euskal Kopa irabaztea.

**Gaur finalurrekoak**

Gaur finalurrekoak jokatuko dira. 17:45ean RPK Araskiren eta Ibaizabalen artekoa hasiko da, eta 20:00etan Lointek-Gernikaren eta IDK Gipuzkoaren artekoa. Do-

mekan, 09:45ean, hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte. Segidan, 12:00etan, talde bi onenen arteko finala jokatuko da.

Sarrerak doakoak dira. Durangoko Kuttun tabernan zein saskiba-

loi federazioaren Bilboko egoitzan eskuratu daitezke aurretik. Egunean bertan ere lortu ahalko dira, kiroldegiko leihatilan.

Euskadiko Saskibalo Federazioaren, Tabirako klubaren eta

Durangoko Udalaren arteko hitzarmen bati eskerrak jokatuko da azken fasea Durangon. Iaz sinatutako hitzarmenak hiru urterako iraupena du. Beraz, 2020ko finala ere Durangok hartuko du.



Euskal kopako parte-hartzaile eta antolatzaileak Durangoko aurkezpenen.

## Iurretakok eta Elorriok ligako denboraldia hasiko dute Ohorezko Mailan

Biek zapatu arratsaldean jokatuko dute; Elorriok etxean Erandioren aurka, eta Iurretakok kanpoan Galdakaoren kontra

**FUTBOL** • JOSEBA DERTEANO

Durungaldeko futbol talde askok asteburuan hasiko dute denboraldia. Esaterako, Iurretakok eta Elorriok estreinaldia izango dute Bizkaiko kategoria nagusian, Ohorezko Mailan. Azken denboraldietan igotzeko borrokan aritu den Iurretakok etxetik kanpora jokatuko du, Galdakaon, zapatu arratsaldean. Elorriok etxean hasiko du denboraldia, Erandio taldearen aurka. Partidua 16:00etan hasiko da, Eleizalde zelaian.

tuko du, Galdakaon, zapatu arratsaldean. Elorriok etxean hasiko du denboraldia, Erandio taldearen aurka. Partidua 16:00etan hasiko da, Eleizalde zelaian.

Elorrioko emakumeen taldeak, ostera, joan zen asteburuan hasi zuen Euskal Ligako denboraldia, eta 2-4 irabazi zuen, Gasteizen.



Elorriko futbol taldearen aurtengo argazkia.

### Jokaldia

Kepa Arroitauregi  
Egaña  
Pilota teknikaria



**Arraia pasa**

Umetatik pilota munduan murgilduta ibiliagatik beti dago zer ikasia. Euskal pilotak bere jokamolde ezberdinetan esatera edo esamolde asko ditu non aspaldian geure egin ditugun, esaterako, ñakua, besagaiña, gantxoia, bolea, txik-txak, txula, labur, luze-pasa...

Orain hiru urte nik neuk eta bizkaitar pilotari gazte talde batek *Arraia pasa* esamoldea ezagutu genuen Zubietako pilota plazan. Euskal pilota jokorik antzinakoena ezagutuaz batera (entzuna bai, baina sekula ez ikusi ez jokatu), bertan erabiltzen diren esamoldeak barneratu genituen. Bote luzea pilota jokoa abenturan sartu ginen. Bizkaitar pilotari talde horrek ikusi, ikasi eta lehiatu egin du ordutik hona, eta emaitzak bikainak izan dira. Euskal Herriko txapelketan jokatuako bi urteetan txapela eskuratu dute Laudion eta Oiartzunen jokatuako finaletan. Horren aurretik, Itsasu, Donapaleu, Irurita edo Oiartzungo pilota plazatan beraien jokoa erakutsi dute.

Berrizko Berrizburu pilota plaza dute egoitza gure pilotarietarako. Aurtengo Euskal Herriko finala bertan jokatuko da, eguraldiak errespetatuz gero, urriaren 19an, eta bertan izatea dute helburu taldean konprometuta dauden denek. Orain artekoa bikain doa, ligatxoko bi partidua irabazi eta finalurrekoen zain baitaude. Partidu hori ere Berrizko pilotaleku irekian jokatuko da, irailaren 28an.

Talde jokoa da Bote luzea, plaza irekian jokatzen dena, eta frontoia joko eremu bakartzat ezagutzen dutenentzat, hala zen guretzat ere, ulerkaitza hasieran. *Arraia pasa* Berrizko Berrizburun entzun zenezake. Hurreratu eta gozatu!

**DURANGO FASHION 2019**  
**gaua**  
irailak ostirala **27**  
20:30  
Andra Mari

Dendak Bai  
688 738 102  
www.dendakbai.eus

DURANGO Udaleko - Ayuntamiento

Euskadiko Nazioarteko Iturria

Dendak Bai durango

**urtxintxa**  
*jostailu denda*

Jolasten ikastea errazagoa delako  
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



HIGIEZINAK  
TEKNOLOGIA  
LANA/NEGOZIOAK  
DENETARIK  
IBILGAILUAK  
HARREMANAK  
AISIA/KIROLA  
FAMILIA/ETXEA

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzako. Erregistratu [www.anboto.iragakilaburrak.com](http://www.anboto.iragakilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

##### ETXEBIZITZAK SALDU

**Abadiño.** Muntzaratz auzoan, 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

##### ETXEBIZITZAK EROSI

#### ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

**Zaldibar.** Zaldibarren herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

#### ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

**Elorrio.** Elorrioko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrioren bertan). Tel.: 688 64 06 04

#### LAN ESKARIAK

##### PERTSONAK ZAINDU

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

#### LAN ESKAINTZAK

##### PERTSONAK ZAINDU

**Barneko langile gisa lan bila.** Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu Tel.: 643 72 71 98 telefono zenbakira.

**Pertsona nagusiak zaintzeko.** Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

**Mallabian pertsona bat behar dugu andre bat zaintzeko.** 12:00etatik 19:00etara Mallabian andre bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Euskaraz jakin dezala. Mallabiko edo Ermukoa bada hobeto. Tel.: 695 78 78 99

**Umeak zaintzeko eta klase partikularrek emateko prest..** 0-12 urte bitarteko umeak zaintzeko edota klase partikularrek emateko prest nagoen 24 urteko neska bat naiz. Haur Hezkuntzako unibertsitate gradua bukatzen ari naiz eta esperientzia handia daukat mundu honetan. Elorrioren edota bere ingurunean lan egiteko prest nago. Interesatuak idatzi Whatsapp bat edo deitu Deitu Tel.: 692 71 66 46 telefono zenbakira.

## ASTE HONETAN

### ITZIAR GARATE



### GARIKOITZ MENDIZABAL



### ERKUDEN TXOKARRO



Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.

**DOAN**

**ttap**  
Irakurri, ukitu,  
ikus, entzun.

Informazio gehiago:  
[ttap.eus](http://ttap.eus)



**DESKARGATU**  
Play Store-n

**DESKARGATU**  
APP Store-n

HAUXE BAI JENEROAI!

MARRAZKILARI. IDAZLE. SORTZAILE. ARTISTA. MUSIKARI. AEK-KO BETERANO.

# IÑIGO MUGURUZA UGARTE

# ADIORIK EZ

EUSKARA AHOAN ETA GITARRA ESKUAN DABIL MUNDUAN

@garbineubeda

## Botikak

**BARIKUA, 20 - 09:00-09:00**

**GAZTELUMENDI** J.A. Abasolo 2 - DURANGO

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 21 - 09:00-09:00**

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - DURANGO

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

**09:00-13:30**

**BALENCIAGA**  
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

**GAZTELUMENDI** J.A. Abasolo 2 - DURANGO

**NAVARRO** Artekalea 6 - DURANGO

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - DURANGO

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - DURANGO

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - DURANGO

**LARRAÑAGA-BALENTZIAGA**  
Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

**EGUREN, ISABEL**  
Trañabarren 15. - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

**09:00-14:00**

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**DOMEKA, 22 - 09:00-09:00**

**BALENCIAGA**  
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

**09:00-22:00**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 23 - 09:00-09:00**

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - DURANGO

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 24 - 09:00-09:00**

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 25 - 09:00-09:00**

**NAVARRO** Artekalea 6 - DURANGO

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 26 - 09:00-09:00**

**SAGASTIZABAL**  
Askatasun etorb. 19 - DURANGO

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



**Malenek** irailaren 18an 6 urte eta Oinatzek abuztuaren 23an 2, handitzen handitzen gure etxeko altxorak eta maitasuna. Besarkada goxo bat aitaren eta amaren partez.



**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11. DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Elene!** (775. alea) Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



**ihan** Narbaiza Aldekoak 5 urte eiten dauz irailaren 26an. Zorionak etxekoan partez.




Zorionak, **Klaudia!** Jadanik 7 urte egiten dituzu! Beti bezain alai eta zintzo jarraitu. Desiorik onenak zure familia maitearen partez.




Zorionak, laztana! Domekan 5 urte egingo dozuz eta primeran ospatuko dogu danok txokolatada eder batez. Mosu handi-handi bat, etxeko danon partez, bereziki, Nikoleren partez.



**Magali**, zorionak zure laugarren urtebetetzean. Jarraitu hain maitagarria izaten!



Zorionak **Adhara!** Urtebetetze egun ona pasa dezazula! Musu handi bat eta maite zaituztenekin ospatu. Your bestie!



**Garazik** 4 urte egingo ditu irailaren 21ean. Zorionak etxekoan partez!

## Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 28° / 18° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 27° / 11° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 20° / 14° ☁️

DOMEKA 🌡️ 21° / 13° ☁️

MARTITZENA 🌡️ 26° / 14° ☀️

EGUENA 🌡️ 21° / 12° ☁️



## Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta  
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

# “Familiakoei esana diet hiltzen naizenean Athleticen kamiseta edo objekturen bat jartzeko”

Garaiko jaietan omenaldi xumea egin zioten Alex Agirrebeitia txistulariari 25 urtean egindako lana eskertzeko

## Alex Agirrebeitia Fontetxa

• Zaldibar, 1971  
Garaiko txistularia

## Berba bitan

**Futbol jokalaria bat**  
Markel Susaeta

**Abesti bat**  
Bizi dudan momentu honetan, Xalbadorren heriotza

**Pelikula bat**  
Irribarreak eta malkoak

**Futbol partidu bat**  
Athletic-Newcastle (1-0 San Mames), Zigandaren golagaz irabazitakoa. Bestetik, Luis Fernandez garaian, Athletic-Zaragoza, Etxeberen golagaz Txapeldunen Ligarako sailkatu ginenekoa.

**Amets bat**  
Familiagaz elkarregaz pozik bizitzea.

**Bidai bat**  
Fiordoetara

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

**Aurten, 25 urte bete dira Alejandro Aldekoaren lekukoa hartu zuela. Garaiko txistulari ofiziala da Alex Agirrebeitia, eta, aurten, omenaldi berezia egin diote Garain. Athletic zale amorratua da eta spinning irakasle lez lan egiten du; Athleticen elastikoa ere badu. Dj lez aritzeko tartea ere hartzen du Agirrebeitiak.**

**Azken 25 urteetan, ez duzu hutsik egin Garaiko jaietan.**

Ez. Behin, erregelen erakustaldian ezin izan nuen txistua jo. Baina, bestela, hantxe izan naute. Halan jarraitzea da nire asmoa.

**Aurten, dantzarekin izan duzun konpromisoa eskertu dizute.**

Bai, sorpresa izan zen. Estimaten zaituztela erakusteko modua da, eta pozik hartu nuen.

**Txistularia zara, eta, tarteka, Dja ere bai. Itxura batean, urrutiko mundu bi dira.**

Ez pentsa. Musikaren munduan batzen dira biak.

Dena da musika niretzat.

Spining monitore izanik, egunero lan egiten dut musikagaz. Asko betetzen nau spinning-ak, eta pilo disfrutatzen dut musikagaz eta ikasleekin. Gainera, aurretik Oiergi musika taldean ere ibilia naiz. Hiru lagunek osatzen genuen taldea, eta utzi genuenean, gogogaz geratu nintzen. 13-14 urte daramatzat Dj lez, baina animatzailetzat dut neure burua, Dj baino gehiago.

**Noiztik zara Athletic zale amorratua?**

Betidanik. Ama arabarra da, eta aita Athletic zalea den arren, ez da oso futbolzalea. Behin joan naiz aitagaz San Mamesera. Aukera izan nuenetik naiz bazkide; denboraldi honetan 25 urte egingo ditut bazkide moduan. Aurretik, 4-5 urte abonatua izan nintzen. 30 urte daramatzat San Mamesera joaten.

**Azalean tatuatuta daramazu lehoa.**

Hala da. Familiakoei ere esana diet hiltzen naizenean, mesedez, Athleticen kamiseta edo objekturen bat ipintzeko.

**Etxean berdin bizi dute zaletasuna?**

Emaztea Real Madrilekoa zen ezagutu nuenean — aitaginarreba ere bada-eta—, baina lortu nuen Athleticen bazkide egitea. Gustatzen zaio futbola. Seme nagusia 2-3 urte

zituenetik eraman dut San Mamesera, baina, orain, Eibarren jokatzeko du... taldea aldatu du. Txikia ere Eibarren zale bihurtu zait. Baina futbolagatik ez dugu haserre izaten!

**Bigarren taldea izango duzu Eibar.**

Estimu apur bat hartu diot, baina, ez. Lehenengo, bigarren eta hirugarren taldea Athletic da niretzat. Akaso, Zaldua.

**Athleticen 1.600 partidutik gora dituzu grabatuta. Nolatan?**

Telebistan emandako partidu guztiak ditut grabatuta eta gordeta, baina gehienak ez ditut ikusi. Batzuek zigiluen bilduma egiten dute. Bada, nik, Athleticen partiduena. Talde nagusiaren partiduak, neskenak eta Bilbao Athleticen batzuk ere baditut grabatuta. Semeak Eibarregaz jokatuak ere grabatzen ditut.

**Zeintzuk partidu dituzu gogoan?**

Asko daude. Baina beti gogoratuko dut 2009ko Kopako finalean, Valentzian, Tokero sartutako gola. Bartzelonaren kontra jokatu zuten. 1984ko Endikaren gola etorri zitzaidan gogora.



## Lauhortza

Mikel Uriguena Ruiz  
Irakaslea



## Patxada

Arin bizi gara. Ez daukagu ezertarako astirik. Dena berehala nahi dugu. Leku batetik bestera arrapaladan mugitzen gara, bideari erreparatu gabe. Ez dakigu lasai egoten eta pazientzia zer den ere ahaztu egin zaigu. Gauzak horrela, ez nau batere harritzen, baina bai apur bat tristatzen, azken asteotan Durangon entzun dudana: “Non sumatzen da aldaketa? Zertan dabilta?” Hori dioten askok babesa eman zioten gobernu talde berriari eta urduri daude jada.

Kritika zein kexa aberasgarriak dira agintean daudenean, presioaren ondorioz, euren lana hobeto burutzeko. Erabakiak hartzeko gaitasuna beharrezkoa da baita ere. Baina, ez ote gara gehiegi eskatzen ibiliko? Itxaroteko gai ez bagara, ez ote dugu zapuztuko aldaketa bera?

Hauteskundeak maiatz bukaeran izan ziren eta udal berria ez zen ekainaren erdialdera arte osatu. Tartean abuztua izan dugu, gainera. Kontuan izan beharko genuke 40 urteko dinamika eta egiteko moduei buelta emateak denbora eskatzen duela. Onena egoera zein den ondo aztertu, hausnarketa egin, aukerak proposatu eta azkenik erabakiak hartu. Susmoa dut udalaren funtzionamendua uste duguna baino konplexuagoa dela eta konplexutasunari aurre egiteak zuhurtzia eskatzen du.

Aldaketa sakona izan dadin, hobe tentuz eta patxadaz aritzea, ezta? Gutxienez, 4 urte geratzen zaizkigu herria aldatu den ala ez erabakitzeko. Gauzak arin eta berehala egiteak ez du esan nahi hobeto egingo direnik. Patxada da denok behar duguna. Nago Durangok ere eskertuko lukeela.



Hizkuntza Escuela Oficial  
Eskola Ofizial de Idiomas

## Matrikula zabalik

Urriaren 3ra arte aukera duzu izena emateko. Sartu gure web orrian eta egin eskaria.

Zalantzarik baduzu, deitu eskolara.  
72,36€ ikasturte osoa  
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net  
94 620 33 42 - 94 681 66 45

